



Rosa Errandonearen argazki erakusketa 03

Bera atzo izeneko argazki erakusketa zabaldu du Rosa Mari Errandonea beratarrak. Igande hau bitarte zabalik egonen da Berako Kultur Etxean.



Nafarroaren Eguna apirilaren 26an 04

Apirileko azken igandean egingen da Nafarroaren Eguna Baigorriin. Aurtun, guztia antolatzen duen Basaizea elkarteak 30 urte bete ditu eta modu berezian ospatzen ari dira.

2009ko apirilaren 16a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



35 Mendi Maratoi Erdia igandean Beran

400 KIROLARI HARTUKO DITU V. EDIZIOAK



Alfonbra eta edredoietan **DESKONTUAK**

deskontuak **%30**

deskontuak **%50**

ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA:
Bittiria 26
SALTOKIA:
Plaza Zaharra 27
LESAKA
Tel. 948 63 77 80




Telefono gida 2009

Baztan · Bertizarana
Bortziriak · Leitzaldea
Malerreka · Urdazuri

Inguru honetako etxe guztietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan eta milaka pertsonak irakurriko dute zure anuntzioa.

ttipi-ttapa
948 63 54 58
publi@ttipi.net

* Publizitatea kontratatatzeko azken egun: maiatzak 29

ttipi-ttapa

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, TELEFONO GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko errexago antolatua.

DATUAK...

- Apirilaren 3tik 19ra *Bera atzo* erakusketa zabalik dago Berako Kultur Etxean, asteartetik igandera, 10:00etatik 14etara eta 16:00etatik 19:00etara.
- Totonon anaiarekin batera bildutako bertze hainbat argazki, agiri eta prentsa-errekorte etxean gordetzen baditu ere, 88 argazki eta postal zintzilikatu ditu Rosa Mari Errandoneak.
- Bertze ehunka argazki eta agiri www.beragureherria.com Interneteko orrialdean kontsulta daitezke.



Rosa Mari ERRANDONEA *Berako argazkilaria*

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

«Biltzen ditugun argazkiak ez dira artistikoak, dokumentalak baizik»

Aitor AROTZENA

Zaila izan al da hainbertze argazkiren artean 88 aukeratzea?

Erakusketa Aste Santuan ere zabalik izan dela kontuan hartuz, Berako paisaiak aukeratu ditugu gehienbat, bisitariak ere gustura ikus ditzaten. Gehienak antikuarioei erositako postalak dira. 1900 urte inguruko bortz argazki ere badaude eta Berako jendeak utzitako argazkiak ere bai.

Noiztik biltzen dituzu honelako argazkiak eta agiriak?

Totonon nere anaia 1977an hasi zen prentsan ageri zen informazioa biltzen. Baina gure aita zenak, Felix Errandoneak, bere ostatuan arbela izaten zuen eta herriko albisteak jartzten zituen: «*El pediorico de la casa*» deitzen zion. Hark ere futboleko eta txirringularitzako argazkiak biltzen zituen eta gero Totonok sailkatu zituen. **Hori ere lan handia izanen da, ez? Ez da aski hainbertze argazki biltzea. Gero sailkatu egin behar dira...**

Noski, dokumentazio guziaz sailkatua daukagu. Nik Laminacionesen 42 urtez lan egin nuen, horietatik 36 Ahol-

«Totonon anaia 1977an hasi zen prentsa errekorteak biltzen, baina aita zenak ere, Casa Felix ostatuko arbelean herriko albisteak jartzten zituen eta argazkiak gordetzen zituen»

kularitza Juridikoan eta hor paperak hagitx ongi gorde behar ziren. Artxi-bo-sistema berdina ekarri nuen etxera: Informazio guziaz auzo edo karriken arabera antolatua dago; horren barnean baserri edo etxeka eta horren barnean, etxe bakoitzean bizi izan zen jendea buruzko informazioa: Erraza, ez?

Berako baserri guzien argazkiak ere badituzue...

Bai, lehenbiziko argazkia 1993an ateratzen nion Artalurrari (Morkotzenborda). Orduan, beratar aunitzek bezala, ez nekien ezta baserriak zein auzotakoak ziren ere. Baina lan honi esker, baserriak ez ezagutzetik gehienetako sukaldaraino sartzera pasatu nintzen eta lagun handiak ditut baserrietan. Lurraren Egunean jartzten den era-

kusketak arrakasta handia izaten du, jendea hurbileko argazkiak gustatzen baitzaizkio. Gure argazkiak dokumentalak dira, ez artistikoak.

Orain, bilduta dituzuen argazkiak eta paperak Interneten ere kontsultatzen ahal dira... Zer erantzun izan du zuen web orriak?

Etxean dugun informazio guziaz hedatzeko sortu zen beragureherria.com web orria. Libururen bat egitea pentsatua genuen, baina ez ginen auzo sartu. Guri teknologia berrien kontu honek heldu xamarrak harrapatu gaituenez, Mikel Zubietarekin harremanean jarri eta hark diseinatu zigun web orria. Erantzun ona izan du beratarren eta arbaso beratarren dituzten emigranteen aldetik. Adibidez, berriki bere arbasoen bila zebilen argentinarrarekin harremanetan izan gara. Informazio aunitz zuten eta Errandonea, Irazoki, Endara eta honelako abizenak... Aitaxi eta berraitaxi Bastida baserrikoak zirela ikasi genuen eta beraien argazkiak bidali. Guziz hunkiturik erantzun digu eta horrek web orriak izan dezaken interesaren gaineko zalantzak uxatzen ditu.



ARGAZKIAK: BASAIZEA KULTUR BATASUNA

Euskal Herri guziko jendea hurbiltzen da Nafarroaren Egunean Baigorriara, eta giro berezia sortzen da.

30 urte bete ditu Baigorriko Basaizea elkarteak euskararen alde lanean

Apirilaren 26rako Nafarroareko Eguna antolatu dute

Gazte abertzale talde bat elkartu eta mugaz gaindi, nafarren arteko lokarriak indartzeko helburuarekin sortu zen Nafarroaren Eguna. 1978an izan zen hori. Geroztik hutsik egin gabe, apirileko azken igandean Nafarroaren Eguna ospatzen da urtero Baigorriin. Iaz bete zituen Nafarroaren Eguna 30 urte eta aurten egun hori antolatzeaz arduratzen den Basaizea Kultur Batasunak bertze horrenbertze egin ditu. Urteekin indartuz joan dira, dudarik gabe, eta Nafarroaren Eguna egun seinatu izatera ere pasatu da euskaldun aunitzentzat. Baina helburuak hastapenekoak dira: nafarrak euskararen alde biltzea. Nafarroaren Eguna da Basaizeak antolatutako ekitaldien artean jendetsuena. Baina ez bakarria. Olentzero, inauteriak, urtats gaua, solas eta jolas programa, kulturaldia, bertso eta kantu afariak, merkatua, udan haurrendako jarduerak euskaraz... antolatzen dituzte. Baita igande honetan, apirilak 19, Elizondoko Lur dantzalekuan egingen den Nafarroari eskainitako kantaldia ere. Aldi honetan modu berezian ospatu nahi dute Basaizea Kultur Batasunaren 30. urteurrena.

ttipi-ttapa

30 urtek aunitzerako ematen dute eta Basaizea Kultur Batasunaren kasuan, elkarteak sendotzeko balio izan dute. 1979tik hiru belaunaldi aldizkatu dira elkarteak, eta guztiek garai zailak aitzin egiten jakin dute. «Urte ilunak izan dira, herioak ere jo gaitu, dudak, gogoe-ta faseak, haustura... Baina elkarteak iraun du». Horrela azaldu digu Argia Oltzomendi lehendakariak. Zergatik ote? «Menturaz Nafarroaren Eguna salbatu du kultur astea? Pentsatzen dut baietz», dio Argiak. «Nafarroaren Eguna arrakasta gaitza lortu baitu, hastapeneko arima galdu gabe».

Lehenbiziko Nafarroaren Eguna 1978an antolatu zen. «Orduan harreman arras guti zen nafarren artean. Europako mugak hetsiak ziren. Baigorriko dantza taldeak eta gaiteroek Nafarroako taldeekin harreman batzuk bazituzten, baina puntualak eta pertsonalak zi-



Argia OLTZOMENDI *Basaizea Kultur Batasuneko lehendakaria*

30 urteotan zein toki egin du Nafarroaren Eguna euskaldunen artean?

30 urtez egun horrek bilakaera baikorra ezagutu du. Lehen urteetan herritarren leihoko hetsiak ziren. Baigorriarrek begi txarrez ikusten zuten Nafarroaren Eguna. Baina 1.000 lagun biltzetik 10.000 lagunera heldu da. Emeki-emeki gero eta jende gehiago hurbildu da Baigorriat. Iparraldeko euskaldunak berantago hasi ziren, baina lehen urteetatik Nafarroa osotik autobusak etorri dira sostengua ekarriz egun horri. Azken hamar urteotan, Euskal Herri osotik etortzen da jendea. Jende kopurua dago alde batetik, eta izpiritua

bertzetik. Nafarroaren Eguna aldarrikapen egun bat ere bada, eta aldarrikapen horiek nahiz ez diren oraino lortuak izan, bederen ulertuak dira, ideiek bidea egin dute...

Nola ikusten duzu Nafarroaren Eguna?

Arrakasta gaitza bildu du baina hastapeneko arima ez du galdu. Egun hortarat heldu denak badaki norat doan, euskararen aldeko egun bat dela. Egun horrek izaitte bat badu, historia bat, erranahi bat. **Hasierako helburuak eta gaur egungoak berak dira?** Bai eta hori zinez atxikitzen dugu. Ez da biziki zaila, ikusiz Nafarroaren Egunaren sortzaileak beti hor direla, gure

inguruan, egunaren antolaketa parte hartzen. Belaualdi berriek elkarte baten lekukoa hartzen dutelarik, ez da beti erraza horren jarraitzea eta badira mementoak duda handiekin... Nahiz eta garaiak eta gizartea aldatu, egokitut egiten gira, eta helburuak beti berdinak dira.

Zein harreman dituzue Hego Euskal Herriarekin?

Gure elkarte, herria, Euskal Herriaren barne kokatzen dugu, Euskal Herriko parte bat osatzen dugu. Harremanak badira, baina ez guk nahi ginuzken adinakoak. Aurten Baigorriko kulturaldiaren egitaraua egin dugularik, xedea Nafarroa osoko elkarte eta eragileekin elkarlan baten eramaitea izan da. Uste dut abiapuntu bat dela, baina espero dut ez dela hortan geldituko.

«Nafarroaren Eguna izaitte bat badu, historia bat, erranahi bat»

ren. Sare tipik horretatik abiatuz, gazte abertzale talde batek Nafarroaren Eguna antolatzea erabaki zuen, egun batez mugaz bi aldetako nafarrak elgartzeko, lotura egiten duen hizkuntzaren inguruan: euskara». Eta horrela egin zen lehen aldiz Nafarroaren Eguna. Hurrengo urtean, berriz, Basaizea elkarte sortu zen eta horrekin batera kultur astea.

30 urte hauen balantzeaz galdetuta, zera erantzun digu Argiak: «Gauzak azkarri aldatu dira gure inguruan. Euskal alorrean bereziki urrats sendoak egin dira.

Euskararen kasuan, egoera «ainitz» aldatu dela iritzi dio Oltzomendik. «Kontzientzia hartze bat izan da, jendea ohartu da galtzeko arriskua zinezkoa zela. Jendearen atxikimendua agertu da». Baina gaineratu duenez, euskararen erabilpenak «arrunt gibelarat egin du eta karrakako hizkuntza izaitetik eskolako hizkuntza izaiterat pasatu da». «Duela 30 urte bakarrik abertzaleen arrangura zen, baina hizkuntzaren aldeko borroka ez da oraino irabazia».

Kulturaren inguruan ere aldaketak izan direla uste du Argiak: «euskal nortasunaren ukaitea harrotasun bat bilakatu da, urte aintzez ahaltzea jasan ondoan».

Politikaren mailan, «aitzinamenduak» egon direlakoan dago Argia, «abertzaleen borroka denborarekin funtsezkoak eta ezagutuak direla argiki agertzen da». Dena den, «abertzaleen lanak segitu behar du. Frantses eta espainol botereek traba bat bezala ikusten gaituzte euren interesen kontra goazelako. Era-

soak beti hori dira, eta horren lekuko ditugu azken hilabeteetako arrastatze, presondegiratze eta zigor gogorrak».

Lan guztia dirulaguntzarik jaso gabe, borondatez egiten dute. Gainera, Nafarroaren Egunean eta Kulturaldian ateratako irabaziak euskararen aldeko elkar-teei banatzeko ere moldatzen dira. «2008an 14.000 euro banatu genituen: Nafarroako Ikastolen Elkarteari, Arberuako eta Baigorriko ikastolei, Mantxut aldizkariari, Bizitegia proiektuari, Euskal Herriko Laborantza Ganbarari...».

Urteetako lanaren emaitza da egun Basaizeak lortu duen indarra. Eta etorkizunera begira ere baikor daude. «Gazteak badira elkarteak, motibatuak eta lanerako gogoz». Hego Euskal Herriarekin harremanetan daude, nahiz eta ez izan «guk nahi ginuzken adinakoak». Alde horretatik, aurten, ahalegin berezia egin dute Nafarroa osoko elkarte eta eragileekin elkarlana bultzatzea. «Espero dut zinez, abiapuntu bat baizik ez dela, eta ez helmuga bat, nafarren arteko harremanen garatzeko».

NAFARROAREN EGUNA

Apirilaren 26an
NAFARROAREN EGUNA 09

30. Urte!

Oraineko eguna:
Oraineko 30. urtearen ospakizuna
Aurten 30. urtearen ospakizuna

Oraineko eguna:
Oraineko 30. urtearen ospakizuna
Aurten 30. urtearen ospakizuna

Oraineko eguna:
Oraineko 30. urtearen ospakizuna
Aurten 30. urtearen ospakizuna

Oraineko eguna:
Oraineko 30. urtearen ospakizuna
Aurten 30. urtearen ospakizuna

ttipi-ttapa aldizkaria

Audutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Goizuetarrei eta aranoarrei, mila esker

2001eko otsailaren 1ean Goizuetako Osasun Etxean lanean hasi nintzen eta urte hauetan oso gustura egon naiz. Harrera ona egin zenidaten eta esker tzekoa da. Azken hilabeteotan amatasun baja dela eta, ez dugu elkar ikusi eta tarte horretan lan finkoa lortu dut beste leku batean. Hori dela eta, Goizueta eta Arano uztea erabaki dut. Erabakia hartzea zaila egin zait, lehen esan bezala, zuen artean oso gustura nengoelako, baina horrela suertatu da. Ohartxo honen bidez, denei bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuet, ongi segi eta jaso nire agurrik beroe-na.

Paula Arburua Lusarreta

Lesakako txoznen inguruan

Lesakako txoznen jarduerarekin zerikusia omen duten borts lagun inputatu berri ditu Guardia Zibilak eta Audientzia Nazionalean diligentiak ireki diren honetan, hausnarketa hau helarazi nahi du Ezker Abertzaleak: Lehendabizi aipatu, eraso berri hau Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoeraren barruan kokatu behar dela. Hain zuzen, etenik gabe ematen ari

den eskubide guztien urraketa testuinguru; ilegalizazioak, jardura politikoen jazarpenak, erakunde politikoen aurkako polizia operazioak... Beste eredu politiko eta sozial baten aldeko edozein ekintza jo puntuan jarri. Horrela, bizi dugun egoera honen ondorioak Euskal Herriaren luze zabalean nabariak direlarik.

Lesakan esaterako, azken bi urteetan, lau lagun atxilotu eta bi bortizki torturatuak izan dira. Arrano elkarte miatu eta sumario batean sartu, mobilizazioetan debekuak eta isun ekonomiko mordoak ezarri zaizkie bizilagunei, herriko 6 presoak beraien herrietatik ehunka kilometrotara urrunduak, ekitaldi bat debekatu eta ondorioz, bi herritar deklaratzera deituak izan ziren, 14 urtez herriko preso bat omentzeko egiten zen mendi irteera debekatu zuten eta eguna joan eguna etorri herria militarki okupatu izan da. Genion bezala, gertaera hauek Euskal Herrian gertatzen ari denaren isla dira.

Dirudenez, menduko gosea eta gure herriaren aurka darabilten zapalkuntza estrategia asegaizak dira eta oraingoan txoznak jarri nahi dituzte jo puntuan. Urrats berri honen atzean helburu garbi bat dago: gure herriaren askapen prozesua oztopatu eta herri mugimenduan beldurra hedatu eta edozein antolaketan kriminalizatzea. Gatazka politikoa parametro demokratiakoetan gainditu eta Eus-

kal Herritarron erabakitzeko eskubidea errespetatu beharrean, errepresio eta zapalkuntza estrategian sakontzen ari da aspaldi honetan.

Lesakan pairatzen ari diren egoera aipatutakoaren ondorio zuzena da. Ezker Abertzaletik, berriro ere zera azpimarratu nahi dugu: herri honek konponbide demokratikoa behar duela, Euskal Herriaren eskubideen errespetuan oinarrituta egongo dena. Bide horretan, gure herriaren burujabetza aldarrikatzen dugunon indarrak biltzea ezinbestekoa dugu. Azken finean erasoaren xedea, Euskal Herriaren oraina eta etorkizuna baldintzatzea baita.

Azkenik, egun hauetan zenbait komunikabide eta alderdik eraso errepresibo berri honek duen larritasuna gutxietsi eta desitxuratze egin duten saiakera salatuta nahi dugu. Esaterako, EAJ-PNVk Lesakan eta komunikabideetan erabilitako gezurrak eta posizioak beraien arduragabekeria erakusten digute. Lesakan bizi den egoera larria aztertzearen urteazko plenora ez ziren agertu, herritarrei gertatzen zaiena bost axola zaiela erakutsiz. Lesakarron interesak babesten ez dituzten bitartean, negoziotarako onurak ateratzen jarraitzen dute horretarako salbuespeneko neurrietaz baliatu behar badira ere.

Iñaki de Miguel Ezker Abertzalea

Edurnezuri

Bazen behin urruneko erresuma bat. Erresuma hartan baso tiki bat bazen eta baso hartan herrixka tiki-tiki bat. Herrixka hartan, lanbidez okina zen famili handi bat bizi zen. Edurnezuri zen familia horretako kideetako bat. Lan handia egin behar izaten zuen Edurnezurik: ogia egin, bere astotxoan hartu eta etxez etxe banatu, baita urrunagoko basoetako herrixketan ogia banatu ere. Baina eguneroko okindegiko lanaz gain, lan gehiago egitea ere gustatzen zitzaion Edurnezuriri, basoko hizkuntzaren alde, herrixkatik urrun zeuden ipotxak laguntzen edo basoan gertatzen ziren basakeriak salatzen. Horiek guzietan aski ez, eta behin herrixkako jakintsuen kontseiluan lan egiteko borondatea ere azaldu zuen. Erresumako Erregeak hala zioen: «Egun batean zure saskia sagarrez bete behar duzu, jakintsuen kontseiluko kide izan nahi baduzu». Ongi da! Edurnezuri eta bere lagunek saski bat ez, bi bete zituzten, denak gorri-gorriak eta sano-sanoak. Baina orduan Erresumako Erregeak hala erran zuen: «Ez, sagar horiek ez dute bali, ustelduak daude eta!». Alferrik izan ziren Edurnezuri eta bere lagunak protestak.

Halere, ez pentsa Edurnezuri eta bere lagunak geldirik egon zirenik. Herrixkan urtean behin halako besta handia egiten zuten eta basoko hizkuntzaren alde, urrun zeuden ipotxak laguntzeko eta basoan

gertatzen ziren basakeriak salatzeke etxola bat paratu eta bertan ogiak, goxokiak eta edabeak saldu eta txiritak eta kil-kerrak kantari jartzen zituzten. Gauz ere lanean segitu ahal izateko ipurtargi talde bati laguntza eskatu behar izan zioten eta gauz etortzeke eskatu zien Edurnezurik ipurtargiei. Baita etorri ere.

Sorgin batek hori ikusi eta Erregerengana jo zuen: «*Gorentasun*—erran zion Erregeari—*Edurnezurik sagar ustelak biltzeaz gain, basoko hizkuntzaren alde egiteaz gain, urrun dauden ipotxak laguntzeaz gain, basoko basakeriak salatzeaz gain, ipurtargiak ekarri ez ditu bada bere etxolarak!*».

«*Aski da!*—erantzun zuen Erregeak, bere onetik ateria—*ekar ezazu Edurnezuri niregana!*».

Eta Erregeak hainbertze lan egin zuen eta bertze hainbertze lan eta gehiago egin nahi zuen Edurnezuri bere etxolara ipurtargiak ekartzeagatik zigorra ezarri zion.

Hala bazan eta ez bazan, ez dadila sar Audientzia Nazionalan, eta atera dadila Lesakako plazan!

Basoko narratzailea

Adibide eredugarri bat

Garraldako Apatena etxean, zaharbertze lanak egin eta igogailua jarri zutenez geroztik, hiru aldiz izan gara bisitan azken hilabeteotan, eta ai-

tortu behar dut denetan txundituta gelditu naizela Kontxesi Pedroarena adiskidearekin, ikusita nola zaintzen duen Amatxo xaharra.

Izan ere, Bixitazio izeneko Amatxo dagoneko urtetan sartuta dago eta nahiko elbarritutik. Bere mundutxoan bizi da; eguna eserita ematen du besaulki batean. Ia-ia beti aldarte onean egoten da. Kontxesik euskal abeslarien kanta goxoak jartzen dizkio eztki, eta Bixitazio hantxe aritzen da aha-petik kantatzen, irribarritsu, eta hankekin erritmoa markatzen.

Beti harrিতuta eta txoratuta gelditu izan naiz ikusita Kontxesik zeinen goxotasunez, xamurtasunez eta maitasunez zaintzen eta tratatzen duen Ama. Hitz egin ere, berebiziko pazientzia hitz egiten eta azaltzen dizkio gauzak, batera urduritu eta asaldatu gabe; niretzat nahi nuke gaitasun bikain hori, alajaina!

Pertsona ospetsu batek zera esan omen zuen: “maita ezazu senidea zure arima bezala; zain ezazu zure begi-ninia bezalaxe”. Horrexegatik pentsatzen dut, norbaitek bere senideak Kontxesik baino hobeki zaintzen baldin baditu, ez dituela batera gaizki zainduko, ez horixe. Bejondeiola Kontxesiri!

Xanti Begiristain Iruñea

• 11 GALDERA LABUR •

Zenbat urte Ulibeltzak Elkartean?
18 urterekin sartu nintzen eta orain 37 ditut... Ba 19 urte.

Eta orain lehendakari...

Bai. Lehen ere Juntan egondakoa naiz. Orain dela 16 urte idazkaria izan nintzen.

Zuzendaritzan 8 emakume izatea kasualidadea edo gizarteak aunitz aitzineratu duen seinale da?
Lagun arteko zerbait izatea nahi genuen eta...

Zein izanen da zure lana?

Karguak banatu ditugu baina denek berdin eginen dugu lan. Karguak izendatu beharra zegoelako banatu ditugu horrela.

Zer moduz ikusten duzu Ulibeltzak Elkartea?

Etorkizuna ikusten diot. Gazteei zeharren toki bat dela iruditzen zaie baina ez da horrela. Aunitz gara eta denentzat gauzak egiten saiatu behar dugu.

192 bazkide baina zuzendaritza berriko bileran 30 bertzerik ez...

Bilera gehienetan horrela izaten da, 25-30 biltzen gara, gehiago ez. Pena da, ez dakit jendeak ez duen interesik edo zer pasatzen den...

Bi urteotan zuen egiteko nagusiak zein izanen dira?

Urtero bestetan, inauterietan eta bertze egun sinalatuetan egiten diren ekitaldiak antola-

tzen segituko dugu. Hortik aparte, ea adin guztietako jendearentzako gauzak egiten ditugun. Saiatuko gara.

Zuzendari edo sukaldari lanean hobeki?

Sukaldean.

Jantokiko haurrek ala Ulibeltzako bazkideek emanen ote dizute gerra haundiagoa?

Ba ez dakit! Iguar bazkideek e!

Sunbillako gazta lehiaketan zer moduzko maila ikusi zenuen?

Ez naiz aditua, baina etxean eginak izateko nahiko onak ziren. Denetarik zegoen, eta batzuk hagitz onak.

Zer du Sunbillak bertze herriek ez dutena?

Ez dakit bertzeek baduten ala ez, baina hemen elkartasun handia dugu gauzak antolatzerakoan.

Gazteak, helduak... Denak elkartzen gara.



Rake URTXEGI

Sunbillako Ulibeltzak Elkarteko lehendakaria



EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK

Euskarazko komunikabideei laguntza duinak emateko eskatu dute Bortzirietako ordezkariak

Hezkuntza kontseilariarekin bildu dira Ttipi-Ttapa Telebistaren egoerarekin kezkatuta

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak euskarazko komunikabideentzako dirulaguntza deialdia egin du. Nahiz eta aurtengo aurrekontuetan 9.000 euro baino ez diren aurreikusiak, 240.000 euro emanen omen ditu. Halaxe baieztatu zien Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak Bortzirietako udal ordezkariari martxoaren 31n Iruñean egindako bilkuran. Euskarazko tokiko komunikabideen eta Ttipi-Ttapa Telebistaren aldeko konpromisoa agertzeko bildu ziren Perez-Nievasekin udal ordezkariak, bereziki Ttipi-Ttapa Telebistaren egoerarekin «kezkatuta» daudelako. Hori dela-eta, eskaera zehatzak egin zizkieten Hezkuntza kontseilariari.

Bortz herrietako ordezkariak izan ziren bileran: Koldo Erkizia Lesakako alkatea, Josu Irtzoki Berako alkatea, Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea, Jaime Iturria Arantzako zinegotzia eta Agustin Sainz Igantziko alkateordea.

DIRULAGUNTZA DUINAK
Eskaera argiak luzatu zizkieten Perez-Nievasi. Alde batetik, Ttipi-Ttapa Telebistari eta euskarazko komunikabideei «dirulaguntza duinak» emateko konpromisoa eskatu zioten, baita komunikabideen egoera



UTZITAKO ARGAZKIA

Hezkuntza kontseilariarekin bildu ondotik, Bortzirietako ordezkariak agerraldia egin zuten. Ezkerretik hasita: Josu Irtzoki Berako alkatea, Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea, Koldo Erkizia Lesakako alkatea eta Jaime Iturria Arantzako zinegotzia.

erregularizatzeko hitzarmenaren aldeko urratsak egiteko ere.

Horrez gain, «*orain arte hutsaren hurrengo izan den publizitate instituzionala txertatzeko*» ere exijitu zioten eta «*Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuetan eragitea tokiko euskarazko telebistek lizentzia eskuratzeko aukera izan dezatela*». Horren harira, «*betekizun bidegabe eta neurrigabeak bertan behera uzteko*» eskatu zioten. Lizentzia eskuratu bitartean emititzeko bermea izatea ere exijitu zuten, egoera behin betiko erregularizatzen duten arte.

DIRULAGUNTZA, HUTSAREN HURRENGOA

Nafarroako Gobernuak euskarazko tokiko komunikabideei ematen diren dirulaguntzaren in-

guruan, «*hutsaren hurrengo*» dela salatu zuten udal ordezkariak. Izan ere, %96,91 murriztu da, 310.000 eurotik 9.567 eurora. Ordezkarien hitzetan, murrizketa horrek «*ez du inongo justifikaziorik; euskararen kontra egiten du nabarmen, baita Foru Legearen eta Euroitunaren izpirituaren aurka ere. Ttipi-Ttapa Telebistak emisioa bertan behera utzi behar izan du eta horretan ukaezina da Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna*». Gobernuaren jokatzea «*asaldagarria*» dela ere nabarmendu zuten, «*batzuei dirulaguntzak zeharo murriztu eta bertze batzuei, berriz, itzelezkoak eman. Zein irizpideren arabera, ordea?*».

Gure eskualdea telebista digitaleko lizentzia es-

kuratzeko prozesutik kanpo utzi izana ere kritikatu zuten, eta Euskarabideari daukan erantzukizunei ez muzin egiteko eskatu zioten. Nafarroako Gobernu osoari euskara gaietan aholkatzen diona bera delako.

BILERAREN BALORAZIO POSITIBOA

Eskari hauen aitzinean, Perez-Nievasen euskarazko komunikabideentzako dirulaguntza deialdia eginen dutela erran zuen eta iazko kopuru bera banatuko dutela: 240.000 euro. Ziurrenik uda ondotik banatuko omen dute.

Euskarazko telebistak lizentzia eskuratzeko aukera izan dezan lan eginen dutela ere hitzeman zuen kontseilariak eta konpromiso politiko hori bere gain hartu zuen.

Udal ordezkariak bileraren emaitzaz balorazio «*baikorra*» egin bazuten ere, hemendik aitzinera ere, gai honi jarraipena eginen diotela berretsi zuten bilera ondotik egindako prentsaurrekoan.

SINADURA BILKETA

Aitzineko alean iragarri bezala, Ttipi-Ttapa Telebistaren aldeko sinadura bilketa abiatu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Toki hauetan sina daiteke.

ARANTZAN

Herriko Etxean
Pabloenea ostatuan.
Ilargi okindegian.

BERAN

Herriko Etxean
(momentuz hemen bakarrik. Aitzinera-go gehiago zehaztuko dute)

ETXALARREN

Kultur Etxean

IGANTZIN

Herriko Etxean
Eskolan (16:30ak arte).
Biltokin (20:00-21:00).
La Villa jatetxean (asteburuetan).

LESAKAN

Herriko Etxean
Igerilekuetan
Okindegian
Aliprox dendan
Ibaiondo janaridendan
Arrano Elkartearen
Tanturumairu Ikastolan
Irain ikastetxean

BERA

Sanesteban bestetako kartela iragartzeko lehiaketa zabalik dago

Lanak aurkezteko epea apirilaren 24an bukatuko da

ttipi-ttapa

Sanesteban bestak iragartzeko kartel lehiaketa zabaldu du urtero bezala Kultur Batzordeak. Apirilaren 24an bukatuko da aurkezteko epea; egun horretako 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxeko bulegoetan.

Azalean, *Berako Sanesteban Bestak 2009* testua bakarrik agertu beharko du; kartelak kolorezkoa izan beharko du, eta bertikala, 18x24 zentimetrokoa.

Aurkeztutako lanaren gibelean goititzen bat baino ez da paratuko, eta aparteko gutun-azal batean idatzi beharko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena paratuz. Barrean, datu hauek agertu beharko dute: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

Ohi bezala, epaimahaia Kultur Batzordeak izendatuko du eta bestetako programan erabiltzeko eskubidea bere gain hartuko du. Sarituak izan ez diren gainerako lanak bestetako programan erabiltzeko eskubidea ere bere eginduko du.



ARGAZKIA: AYLA

Jendetza Korrikaren 16. edizioan

Sara utzi eta Lizuniagan barrena ailegatu zen Berara Korrikaren 16. edizioa. Haurrak, gazteak, helduak... Eguraldia lagun jende andanak parte hartu zuen, eta lekukoa modu berezian jauntzita eraman nahi izan zuenik ere izan zen.

Saria bakarra izanen da, 450 eurokoa.

Mendi Itzulia maiatzaren 3an

Iragarri bezala, Mendi Maratoi Erdia igande honetan, apirilak 19, eginen da. Xehetasun gehiago 33. orrialdean izanen duzue irakurgai. Horrez gain, maiatzaren 3an Mendi Itzulia eginen da. Aurtengoa IX. edizioa izanen da baina horri buruzko xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

Kultur ekitaldiak apirilean

Apirilaren 26an, haurrentzako **pailazoak** izanen dira Kultur Etxean Ricardo Baroja Ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta. Korri, Xaltoa eta Brinko pailazoek *Artistak bat naiz ni* ikuskizuna eskainiko dute, 17:00etan. Hurrek 3 euro ordaindu behar dute eta helduek 2 euro.

Bertzetik, liburuaren Eguna dela eta, hainbat ekitaldi egiten ari dira apirilean. Apirilaren 3an,

erraterako, gazteentzako eskulan tailerra egiten zen. Hilaren 22an, asteazkenarekin, haurrentzako **ipuin irakurketa** izanen da Liburutegian. Anasaps-Dizdirak antolatuta *Fufu eta beroki berdea* ipuina izanen dute entzungai neska-mutikoei, 18:00etan hasiko da saioa.

Bertzalde, Hasier Larretxea arraioztarrak *Azken bala* bere azken **liburua aurkeztuko** du apirilaren 24an, ortzira-ira, 19:30ean.



PERTSONAIA

Fernando ETXEGARAI

Sara Korrika Trail Lasterketan txapeldun

Joan den urtean bezala, Sara Korrika Trail Lasterketa irabazi zuen Fernando Etxegarai martxoaren 29an. Lasterketaren laugarren edizioa zen aurtengoa eta beratarrak ez zuen hutsik egin: 25 kilometroko ibilbidea osatzen lehenbizikoa izan zen.

Gaztea Sariaren bila

Gaztea Sarietako bat jasotzeko hautagaien artean herriko mutil gazte kuadrilla bat dago. Bideo lehiaketara *DTN Do The Nahia Dance* lana bidali zuten eta lehenengo bortzetan sartu dira. Matzadako aldageletan dago grabatua eta ikusteko www.youtube.com web orrian sartu eta *nahia dance boys* idatzi behar da. Euren aldeko botoa emateko azken eguna igande hau, hilak 19, da.

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Ttapi-ttapa 4. edizioa
Ttapi-ttapa: 948 630 618 | Kantonberrin 12 - BERA

BAR BboxO OSTATUA
Zaten • BERA • 948 630 052

carroba
gustatzen duzue
1.000.000.000
www.sarria.net

LESAKA

Txoznekin zerikusia omen duen ikerketa batean inputatu gisa deklaratu dute bortz herritarrek

Elkartasuna eta babesa adieraziz mozioa onartu du Udalak

Aitor AROTZENA

Sanferminetako txoznekin zerikusia omen duen Audientzia Nazionalako ikerketa batean, Guardia Zibilaren aginduz bi herritar deklaratzera deituak izan ziren lekuko gisara eta horietako batek, egun guttitar inputatu gisara ere deklaratu behar izan du. Gertaera hau salatzeke eta «*bizi dugun salbuespen egoera*» salatzeke, lesakar talde batek prentsaurrekoa eskaini zuen martxoaren 31n. «*Herrian bizi dugun egoera larriak alarma guziak piztu*» dituela aipatu zuten.

Azken urteetan, izan diren eskubide bortxaketak gogoratu zituzten: «*7 herritar izan dira atxilotuak eta torturatuak, bertze bat erbestera, Arrano elkartearen miatua eta sumario batean sartua, presentzia polizial itogarria bazter guzietan...*». Azken urtean egoera hori larritu dela eta iazko atxilotetak eta espetxeratzeak, Sastri-neko martxaren debekua eta bertze zenbait gogoratu zituzten. Orain berriz ere Lesa-

ka jo puntuan jarri dutela adierazi zuten eta gertaera honek elkarbizitza oztopatzen duela eta «*lesakar aunitzen oraina eta etorkizuna erabat baldintzatzen*» duela nabarmendu zuten.

Gerotzik, bertze lau herritarrek ere deklaratu behar izan dute afera honen inguruan.

MOZIOA

Martxoaren 27an Udalbatzak mozio baten bitartez konponbide baten beharra azpimarratu zuen eta «*beraien eskubide sozial eta zibilak urratuak dituztenei*» elkartasuna eta babesa adieraziz mozioa onartu zuten EAk eta Oninek. Inputazio honek «*gure herrian dauden arazoan judilizazioa*» bertzerik ez dakarrela eta arazo politikoa moldatzeko deus onik ez duela ekarriko aipatzen da mozioan. Antolatzen diren mobilizazioak errespetatuko dituela eta «*baketsuak izan eta azarorik gabe egin daitezten*» Udalak posible duen guziaz egingen duela ageri da onartutako mozioan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Korrikari ongietorri beroa eskaini zitzaion

Ongi etorri euskararen mundura Korrikaren aurtengo leloa ederki bete zen herrian eta hainbat lagunek parte hartu zuten AEKK antolatzen duen euskararen aldeko lasterkaldian. Argazkian ageri denez, Tantirumairu ikastolako bortz ikaslek, ezker-eskuin Uruguai, Peru, Etiopia, Brasil eta Kolonbian jaiotakoak, eraman zuten lekukoa plaza inguruan.

PNVko zinegotziak ez ziren ezohiko batzarrera azaldu, «*identifikatu gabeko eta Herriko Etxean sarrerarik ez zuen agiri baten arabera konbokatua*» izan zela-koan. Gainera, Juan

Fermin Mitxelena zinegotziaren ustez, «*txoznak antolatzen dituen taldeak urtetan ez du amorerik eman txoznen kokapenari dagokionez, ez du inolako negoziatoriorik onartzen, eta Uda-*

lak izan ditzazkeen asmoak ez dituzte errespetatzen». Koldo Erki- zia alkateak, aldiz, deial- dia legeak agintzen duen- naren arabera egin ze- la dio eta «*seriotasuna*» eskatu dio PNVri.

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara lanak apirilaren 30a arte aurkez daitezke

Betizuak peñak 25 urte bete ditu eta bereziki ospatuko du

A.A.

Sanferminak iragartzeko kartel eta programaren portada lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren 30eko 13:00ak arte ireki du Udalak, Lesakan jaio edo bertan bizi direnentzat.

Programaren azalek 25x20 zentimetro izanen dute osotara eta kartelek 50x40 zentimetro. Bietan, *Lesaka 2009ko Sanferminak* agertu behar du. Kartel nahiz azal lehiaketako lehen saria 500 eurokoa da eta bi lanak argitaratuko dira. Bertze lanak ere, programan argitaratu ahal izanen dira.

Bertze aldetik, programaren gibe- leko azala aukeratzeko ere lehiake-

ta izanen da herrian ikasten duten neska-mutikoentzako. Lehenbiziko saria, eskola materialean erabiltzeko 300 euroko erosketa-balea izanen da.

BETIZUAK PEÑAK 25 URTE

Sanferminetako kontuekin segituz, Betizuak peñak 25 urte bete dituela eta zenbait ekitaldi egiteko asmoa du. Hasteko, peñen egunean bazkari berezia egingen dute Xaturetxean eta izen ematea maiatzaren 3a baino lehen egin behar da Koxkilla, Haizegoa eta Atxaspi ostatueta, 25 euro ordainduta. Ospakizunerako kamisetak ere egiteko asmoa dute.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

IRU BIDE
Distribuidora
Bilbo 754, 3. 48012
tel. 940 637 127

BOZZ-AID
JANWEDDIA
www.ira.com

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel. 940 637 127
Bilbo 754, 3. 48012

ETXALAR

Udalak eta Altxatak eraman dute aurtengo Korrikako testigua

Eskolako haurrak ere lasterka aritu ziren, Landagainek antolatutako Korrika Ttikian

Joseba eta Nerea

Azkeneko edizioetan bezala, aurtengo Korrikan ere bi kilometro erosi zituen Etxalarrek. Udalak bat eta Altxata Kultur Elkarteak bertzea. Martxoaren 30ean, astelehenean, pasatu zen Korrika Igantziko Bente-tatik. Hantxe hartu zuen testigua, 14:50ean, Patxiku Irisarri alkateak. Ondotik, Arantxa Danborienari pasatu zion erreleboa. Altxataren izenean eraman zuen honek testigua, gero, Berako Manttale taldeari uzteko. 20 bat etxalarrek parte hartu zuten 16. Korrikaren edizioan, bertze herrietako lasterkari guztiekin batera. Giro onak eta umoreak ez zuten hutsik egin.

ESKOLAKO HAURRAK ERE KORRIKA

Aspaldiko urtetako ohiturari segituz, Landagain Eskolako ikasleek euren Korrika egin

zuten. Zikloka banatu-ta, herri osoan barna lasterka aritu ziren, talde batek bertzeari testigua pasatuz. Plazan akabatu zuten Korrika, jola-sean. Berendu ederrak ere ez zuten hutsik egin. Eskolako ikasle guztiek parte hartu zuten, 3 urtetik 12ra bitartekoek.

Aurrekontuen hasierako onespena

Otsailaren 27an Udalak egindako Batzar Berezian 2009ko aurrekontuak onartu zituzten. Urte honetarako aurreikusi diren gastu eta inbertsioetarako Udalak 1.279.756 euroko aurrekontua prestatu du. Aurten eginen den inbertsioetako obrarik garrantzitsuenak herriko argiteria berritzea izanen da, eta falta den lekuetan argia jartzea (175.000 euro). Mendiko lanetan berriz, 193.000 euro gastatuko dira.



ARGAZKIA: AXUN MAIA

Korrika Ttikian gustura ibili ziren neska-mutikoak. Argazkian talde bat bertze-ari lekukoa pasatzen ageri da.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Zuhaitzaren Eguna

Joan den martxoaren 13an Zuhaitzaren Eguna egin zuten Landagain Eskolan. Urtero bezala, herriko mendi txoko bat aukeratu eta hainbat zuhaitz landatzera joan ziren ikasle guztiak. Aurten Usategietako Larrasaitseko Harrobi Azpian izan ziren, elorriak, gaztainak, gorostiak, eta abar landatzen. Eguraldi ederraren laguntzarekin, egun polita pasatu zuten ikasleek. Beti bezala, Joxe Angel Goienetxe albintek eta zenbait gurasok ere parte hartu zuten Zuhaitzaren Eguneko ekitaldian.

Aurrekontuak ez zituzten aho batez onartu. EAK ez zituen onartu ez alkatearen ordain-

sariarekin, ez Herriko Etxearen gibelaldean egiten ari diren obrekin aurreikusitako gastuak.

Beraz, Herri Taldearen aldeko 4 botoekin eta EAren kontrako 3 botoekin onartu zituzten.

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Telbata auzoa - LEKARIZ
948 402221 - 426 404317

LINDDURRENBORDA
Nabaz auzoa - LESAKA
948 637212

IGANTZI

Igerilekuko ostatua hartzeko eskaintzak ortziralera arte aurkez daitezke

1.300 eurotan atera du Udalak lehiaketara

ttipi-ttapa

Igerileku denboraldia hasteko bi hilabete inguru gelditzen badira ere, Udalak igerilekuko ostatua hartzeko aukera lehiaketara atera du. 1.300 eurotan atera du eta eskaintzak aurkezteko epea ortziral honetan, apirilak 17, bukatuko da. Denboraldia, berri, ekainaren 13an hasiko da eta irailaren 12ra bitarte igerilekuak zabalik egonen dira.

Bertzalde, aurten ere, soroslea kontratatzeko laguntza jaso du Udalak. Hiru hilabetetarako soroslea kontratatzeak eragindako gastuaren %80a hartuko da. Soroslea hartzeko eskaintza publikoa egingen da.

Lesakara doan bideko obrak Pagozelayk

Pagozelay enpresak egi-

nen ditu Lesakara doan bidea konpontzeko lanak. Batez ere, kurba haunditzea eta arriskuak diren lau puntu kentzea izanen da egin beharreko lana. Horretarako, zenbaitetan harri-lubetak eraikiko dira.

Espainiako Gobernuak emandako 107.255 eurokoekin egingen dira obrak, eta Pagozelayk hilabete eta erdiko epea izanen du egiteko. Lehiaketara aurkeztutako bi eskaintzen artean, Udalak Pagozelayrena hautatu zuen martxoaren hondarreko bilkuran.

Langilea hartzeko subentzioa

Herriko lanetarako langilea kontratatzeko 3.000 euro eskaseko dirulaguntza jaso du Udalak. Ohi bezala, langilea hartzeko eskaintza publikoa egingen da.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Sartu-irtena egin du Korrikak herrian

Eskualdean barna egindako itzulian, Korrikak bere sartu-irtena egin zuen Igantzian martxoaren 30ean. Lesakatik barna sartu zen eta gero Berrizaun aldera egin zuen, handik Sunbillara joateko. Hainbat herritar atera ziren euskararen alde lasterka.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Erortza konpontzeko soluzio bila

Otsailaren 11-12ko euriteek erortza haundia eragin zuten pisu berrien ondoan. Kalteen ondorioz, karrika ere itxi egin behar izan zen. Halakorik berri gerta ez dadin, Udala arazoa nola konpondu aztertzen ari dira eta laguntza eskatu du Nafarroako Gobernuan.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.

Igantziko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik
- Mantenu rodilloak



Zalain
jateketa - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA



PIKABEA

harategia janariak

7 BERRA • 948 631 264

ARANTZA

Udalak 8.702 euroko dirulaguntza jasoko du ur hornidura sarea hobetzeko

Bertzalde, 15.450 euro lortu dira herriko lanak eginen dituzten langileak kontratatzeko

Nerea ALTZURI

Aste Santuko egunak pasatu dira. Batzuentzat atsedean edo opor egunak... Eta bertzetik, ohiko elizkizun eta prozesioak ere egin dira. Urtero bezala, herria ere zertxobait haunditzen da egun horietan, aterpe edo landetxeetan ostatu hartuz, oporraldia bertan pasatzen dutenak ere egon badaudelako. Bertako ostatu, denda eta jatetxeek ere mugimendua nabaritzen dute. Modu batean edo bertzean, gure herria oporraldirako ala egunpazarako tokia izaten da egun seinlatu hauetan.

Dirulaguntzak

Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak 8.702 euroko dirulaguntza onartu du ur hornidura sarearen hobekuntzala-

netarako. Dirulaguntza horiek sekula ez dute gastua osoa estaltzen, hau da, normalean dirulaguntzak ez dituzte %100ean ematen. Herriko azpiegitura honetarako 14.421 euroko aurrekontutik 8.702 euroko subentzioa onartu du Foru Gobernuak.

Bertzalde, Nafarroako Gobernu Enplegu Zerbitzuak 15.450 euroko dirulaguntza onartu du. Udaletxearen, karriken eta bideen txukuntze eta mantentze lanetarako langileak kontratatzeko izanen da hori.

Udaberriko Bira

la urtero, Udaberriko Birak herrian ere geldialdia egiten du. Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuak eta Vianako Printzea erakundeak



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA ETA NEREA ALTZURI

Euskararen alde korrika

Martxoaren 30ean Korrika eskualdetik pasatu zen. Herri hurbilean Ekaitza Elkarteak, Udalak, Gazte Asanbladak, Eskolak eta Guraso Elkarteak kilometroak erosiak zituzten. Igantziko bidegurutzetik Igantziko Bentataraino herriar kuadrillak eskuz-esku lekukoa txandatu zuten. Batzuek kilometro gehiago ere egin zituzten. Bertzalde, apirilaren 4ko arratsaldean Korrika Kulturala izan zen. Haur, gazte eta heldu aunitz aritu ziren lasterka herrian egindako ibilaldian eta giro ederra nabarmena izan zen. Ondotik Jo ala Jo Kultur Taldeak eskainitako txalaparta tailerrak ere interes handia piztu zuten. Xabi Torres eta Iratxe Oteroren azalpenak adi-adi jarraitu zituzten neska-mutikoei eta probatzeko aukera ere eduki zuten.

200 eta 1.000 biztanleko udal eta kontzejuetan antolatzen duten kul-

tur ekitaldien programaren barne, maiatzaren 9an, ilunabarreko

8etan, Mielotxin folk musika taldeak emanaldia eskainiko du plazan.

Lizardi
Telekomunikazioak

 TDT Instalazioak
 TB Instalazioak (satelite, jarrekoak)
 Instalazio indibidualak eta kolektiboak
 Portero automatikoak
 Ebako hari musikala

Tel. 670 415 720
joseanlizardi@hotmail.com

APARAN, S.A.
BOIXOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ARRANTZA

Bidasoako 'Lehenbizikoa' atera du Ernesto Gaintza beratarrak

Izokinak arrantzatzeke denboraldia ireki den egunean harrapatu du

ttipi-ttapa

Apirilaren 1ean zabaldu zen Bidasoan izokinak arrantzatzeke denboraldia eta egun horretan harrapatu zuen saioiko lehen alea, *Lehenbizikoderitzona*, Ernesto Gaintza Aranburu 38 urteko beratarrak.

Goizean 9:30 aldera harrapatu zuen 6,950 kilo eta 89 zentimetroko izokina, Villanuevako bihurtunea eta zentralaren artean dagoen putzuan. Denboraldia lan egunean ireki arren, jende aunitz bildu zen Los 50 inguruan. «*Horregatik errekan goiti joan eta Villanueva inguru horretan bakar-bakarrik egon nintzen*», azaldu zion Gaintzak **Ttipi-Ttapari**.

Ez da atzo goizean arrantzan hasitakoa Gaintza, 17 urte zituenetik horretan ari baita. Tarte horretan 65 bat izokin arrantzatu omen ditu, baina sekulan ez *Lehenbizikoa* eta ez hain haundirik ere.

ESKAINTZARIK EZ

Ohi bezala, Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak kideek oroigarria eman zioten Gaintzari *Lehenbizikoa* arrantzatzeagatik, baina



ARGAZKIA: LEGARRA

Ernesto Gaintza aurtengo Bidasoako lehen izokinarekin.

arrain hau erosi ohi zuen Iruñeko Hartza jatetxea itxita dagoenez, ez du uste bertze saririk izan duenik. «*Ez dut eskaintzarik izan, beraz, seguruenik etxean janen dugu. Sake ederra emanen diogu!*». Horrela aipatu zion Gaintzak **Ttipi-Ttapari**.

UZTAILAREN 19RA EDO 60.A ARRANTZATU ARTE

Aipatu bezala, apirilaren 1ean ireki zen izokinak arrantzatzeke denboraldia eta uztailaren 19ra bitartete zabalik egonen da, aitzinetik ezarritako 60 aleko muga gainditzen ez bada. Hala balitz, hor bukatuko litzateke denboraldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Denboraldiko bigarren izokina oraindik haundiagoa

Denboraldia hasi eta handik egun batzuetara arrantzatu zuen Lesakako Norberto Mitxelena Iturbidek bigarren izokina. 7 kilo eta 200 gramo eta 90 zentimetroko alea harrapatu zuen.

BORTZIRIAK

Sakabanaketaren aurkako martxa Beran eta Lesakan

ttipi-ttapa

Etixeraten ekimenez, astearteaz geroztik Euskal Herria zeharkatzen ari den sakabanaketaren aurkako martxa larunbatean, apirilak 18, ailegatu da Bortzirietara. Etixeraten arabera, «*egun hauetan PSOE eta PNVk martxan jarritako espetxe politikak 20 urte bete ditu*». Hainbat helbururekin jarri zuten espetxe politika hura abian: «*kolectiboak banatu eta zaitu, presoak pertsonalki txikitu eta presoaren ingurua zigortu...*». Etixeraten hitzetan, «*helburuak ez dituzte bete, baina ondorioak gogorak izan dira: 21 preso hil dira, horien artean Kotto beratarrak, 16 senide eta lagun hil dira errepideetan, dozenaka istripu, milioiko euroko gastua... Bortzirietan astero 40 minutuko bisita bat izateko 12.000 kilometro egin behar ditugu*». Guztia salatzeke furgoneta bira abiatu zuen Etixeratek, eta igandean Durangora ailegatu baino lehen, larunbatean Lesakan eta Beran eginen du geldialdia. 17:00etan kontzentrazioa eginen da Lesakako plazan; 17:30ean martxa oinez Berara; 19:30ean kontzentrazioa Altzateko plazan eta 21.00etan afaria.

2 SARRERA
BIDALI ttipi saskia
Artic
IZOTZ JAUREGIA
5767



Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazten dut

2009ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

2009ko TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	PARTZUERGOKO TRATAMENDU TASA
	Euro/Urteko	Euro / Urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorren bizi ala ez	75,60 €	28,47 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metro-ra dauden baserriak	64,30 €	28,47 €
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	52,90 €	28,47 €

1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxeresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdin-degiak, okindegiak, ileapaindegiak, lan bulegoak	75,60 €	35,79 €
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari dendak), etxeresna dendak eta farmaziak	148,40 €	35,79 €
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	226,30 €	35,79 €

1. Ostautua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	150,80 €	35,79 €
2. Ostautua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak	302,00 €	35,79 €
3. Ostautua. Pub eta diskotekak	377,20 €	35,79 €

1. Jatetxea. Modu iraunkorren irekiak dauden Elkartea gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	377,20 €	35,79 €
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	679,10 €	35,79 €

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	PARTZUERGOKO TRATAMENDU TASA
	Euro/Urteko	Euro / Urteko
Landetxeak.	151,30 €	35,79 €
Landetxeak. Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	128,70 €	35,79 €
Landetxeak. Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	105,90 €	35,79 €

1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	527,90 €	35,79 €
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	754,30 €	35,79 €

Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	376,70 €	35,79 €
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	754,30 €	35,79 €
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.131,50 €	35,79 €

Lantegiak, lau langile bitarte	75,60 €	35,79 €
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	150,80 €	35,79 €
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	377,20 €	35,79 €
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	754,30 €	35,79 €
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.131,50 €	35,79 €
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.144,00 €	35,79 €
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.160,20 €	35,79 €

Norberaren erabilerarako edukiontzia	733,50 €	35,79 €
--------------------------------------	----------	---------

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2009ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2009ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarquarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2009ko apirilaren 1ean

Presidentea, Patxiku Irisarri Elizagoien

LANA

Kaleratzeei stop erran eta egoera larriaz ohartarazteko kalera atera dira LAB eta ELA

LABek manifestazioa egin zuen Lesakan eta ELAk martxa Beratik Lesakara

ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoaldean sindikatu nagusiak diren ELA eta LABek deitutako ekimenek jendearen parte-hartze zabala izan dute.

ELA: 'EGOERA LARRIA'

ELA sindikatuak deituta, 400 bat lagunek bete zuten martxoaren 28an Berako Zalain industrialdea eta Lesakako plazaren arteko ibilbidea, *Bortziriak-Malerreka-Bertzarana-Baztan egoera larrian* zioen pankartaren gibeletik. Ibilaldian «*Industrian nahi dugulan egin*», «*Enplegurik gabe, bizitzarik ez*», «*Dirurik ez da falta, lapurrak soberan*», «*Bidasoa borrokan*» eta gisako oihuak bota zituzten.

Lesakako plazara ailegatuta, Jose Mari Arribillaga Baztan-Bidasoko ELAko ordezkariak hartu zuen hitza. Eman dako datuen arabera, «*Beratik hasi eta Urdaubi-Zugarramurdi bitarteko 600 kilometro koadroetan 20.000 bizilagun bizi dira. 8.000 pertsonako populazio aktibobatean, mila langabeak dira gaur egun eta 2.000 inguru espedienteren batean murgilduak daude*». Gauzak aldatzen ez ba-



ARGAZKIAK: AITOR A.

Goian ELA sindikatuak martxoaren 28an egindako martxa, eta behean LABek deituta apirilaren 3an Lesakan egin zen manifestazioa.

dira, eskualdea «*basamortu industriala*» bihurtzeko adierazi zuen.

Mitxel Lakuntza ELAko Nafarroako koordinatzaileak Nafarroako Gobernuak eskualde honekin izan duen «*utzikeria*» salatatu zuen. Enplegu Plana ere salatatu zuen:

«*1.500 milioi euroko inbertsioa egin bai, baina lagunei laguntzeko besterik ez du balio izan. Zerbait diru ailegatu da Baztan-Bidasoaldera?*».

LABEK KALERATZEEI 'STOP'

Eskualdean egiten ari di-

ren erregulazio espedienteen eta despidoen kontratuetako 200 bat lagun bildu zituen apirilaren 3an Baztan-Bidasoaldeko LABek. *Kaleratzeak Stop* zioen pankarta baten gibeletik egin zuten ibilbidea Lesakako karraketan barna eta kaleratze eta

EREen kontrako oihuez gain, maiatzaren 21erako ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek deitutako greba orokorraren aldeko oihuak ere egin zituzten.

LANGILEEN TESTIGANTZAK

Ibilaldia Plaza Zaharrean bukatu zen eta han Arcelor, Condesa, Hidro-Rubber, Composites Gurea, Funvera eta bertze zenbait enpresetako langileek beraien egoera «*kezagarrien*» berri eman zuten, gehienak lan erregulazio espedienteen menpe baitaude.

«ERRESISTENTZIATIK ERASORA»

Segidan, Igor Arroio Nafarroako LABeko idazkariak hartu zuen hitza eta eskualdeko langileek beraien lanpostuen defentsan egiten ari diren lana goraitatu zuen. «*Enpresariak milioietako irabaziak izan dituztenean langileen egoera ez da batere hobetu*», gogoratu zuen. «*Baina egoera kaxkartu denean, langileak izan dira lehenbiziko kaltetuak*». Azpimarratu zuenez, «*orain arte langileek erresistentzia egin dute, baina erasora pasatzeko ordua da*».



SUNBILLA

Adin guztietako herritarrek gozatu dute martxo hondarreko Kultur Egunetan

Gazta lehiaketara aurkeztutako 15en artean Miguel Antzizarrenak irabazi du

Jaione OTXANDORENA

Martxoaren 27, 28 eta 29an Kultur Egunak ospatu ziren. Antzakaitz Kultur Taldea, Antrotokiko gazteak eta Guraso Elkartearen artean antolatzen dira eta era guztietako ekitaldiak izan ziren.

Ortziral arratsaldean haurrek Korrika Ttikia egin zuten karriketan barrera eta ondotik, jokoa eta berendua izan zituzten plazan. Arratsean, berriz, mus txapelketa izan zen Ulibeltzak elkartearen. 19 bikotek eman zuten izena, eta horietatik, Teresita eta Mañoli atera ziren irabazle.

Larunbat goizeko Gastronomialehiaketan zortzi talde aurkeztu ziren eta giro onean joan zen goiza. Azken momentuan, bi talderen berdinketa zela-eta, txanpon bat airera botatz erabaki zen aurtengo irabazlea. Horrela, irabazlea KAXKARRAK taldea izan zen. Masai tribuz jantzita etorri ziren partaideak eta *course course* prestatu zuten.

Bitartean herriko haurrek herri kirolak izan zituzten eta arratsaldean, birziklatze tailerren eu-



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Haur, gazte eta helduek, denek gozatu zuten Kultur Egunetan.

ren trebezia erakusteko aukera izan zuten. Ulibeltzak elkartearen egin zen bazkarian, 80 pertsona inguru izan ziren. Gauean, argindarraren matxura zela-eta, gaupasa bertan behera galdituko ote zen beldurra zegoen, baina azkenean ez zen arazorik izan. Matxurak iraun zuen tartean, herriko trikitilari eta danborjotzaile batek ostatz ostatu giroa alaitu zuten. Hala ere, Jaizko Band eta Jaione

Olazabalen kantaldia, hurrengo igandera pasatu zen, egun horretan egitea ezinezkoa izan baitzen.

GAZTE LEHIAKETA ARRAKASTATSUA

Igande goizean, hainbat postu jarri zituzten frontoian artisau azokan, denak ikusgarriak. Gazta lehiaketara 15 aurkeztu ziren eta Miguel Antzizarrek lortu zuen lehen saria, bigarrena Primekoborda baserriak eta

hirugarrena Xibolak.

ZOKKETAKO SARITUEN BILA

Zenbait zokketa ere egin ziren feria bukatu-takoan eta oraindik zenbaki batzuk atera gabe daude: urdaiazpikoaren zenbakia 287 da eta atera gabeko gazten zenbakiak hauek: 115, 509 eta 210. Zenbaki haue-tako bat duenak ondoko telefonora dei dezake saria jasotzeko: 626 447195.

Igande arratsaldean, herriko haurren dantza saioarekin eta antzerkiarekin gozatzeko aukera izan genuen eta ondotik, txokolatada ere izan zen.

KORRIKA

Astelehen arratsaldean, Korrika pasa zen Sunbillatik. Hainbat herritar atera ziren laster egitera, baita ikustera ere. Korrikari ongi-etorria txalaparta eta guzti egin zitzaion.

Beraz, Kultur Egunen balorazioa hagitz positiboa dela erran genezake eta lerro hauen bidez, egun hauek aurrera atera ahal izateko laguntza eman duten guztiei eskerrik asko!

Unai Bertiz bigarren Etxaurin

Martxoaren 29an jokatatu zen Etxauriko Harria Txapelketa eta Aimar Irigoien errezydarra (Gipuzkoa) eta Josetxo Urrutia leitzarrarekin batera Unai Bertizek parte hartu zuen. 136,5 kiloko harri baldarra jaso behar izan zuten, eta Unai Bertizek aldiz altxatu zuen. Irigoien gibeletik bigarren gelditu zen. Txapel-dunak 13 altxaldi egin zituen, marka berdinduz.

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA JATETXEA

t tipi
tapa
☎ (0034) 948 635458

BELARRA JATETXEA

ITUREN

Gobernuak Interes Kulturalako Ondare izendatu ditu Ituren, Aurtitz eta Zubietako inauteriak

Erakusketa eta liburu bat ere egin dira

Arkaitz MINDEGIA

Ituren, Aurtitz eta Zubietako inauteriak Interes Kulturalako Ondare izendatu ditu Nafarroako Gobernuak, Lantze-koekin batera. Hala, ondare materiagabeko lehenbiziko kultura adierazpenak izan dira.

2008ko abenduaren 31n Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilariak herrira egindako bisitan, Ituren, Aurtitz, Zubietako eta Lantzeko inauteriak Interes Kulturalako Ondasun izan daitezkeen, dagokion prozedura abiatuko zuela iragarri zuen, eta apirilaren 6an hartu zuen Gobernuak behin betiko erabakia.

Horrez gain, hilaren 7an, inauteriei buruzko erakusketa eta argital-

pena aurkeztu zuten Iruñean dagoen Nafarroako Artxibo Nagusian. Erakusketan inauterien historia, bilakaera eta egungo egoera ageri dira, eta argitalpena *Panorama* bildumarekin kaleratu da.

Dirulaguntza langileak kontratatzeko

13.784,16 euroko dirulaguntza hartuko du Udalak Nafarroako Gobernuak Enplegu Zerbitzuetatik eta subentzio horrekin bi langile hartuko dira. Euren egitekoa bideak moldatu eta garbitu, pintatu eta bertze moldaketa lanak egitea izanen da. Langileak aukeratzeko orduan, langabeek lehenatasuna izanen dute.



ARGAZKIA: MARI JOSE APEZTEGIA

Korrika Ttikia herrian eta nagusia Basakabin

Martxoaren 27an eskolako hurrek Korrika Ttikia egin zuten herrian baina. Astez eskolan egindako petoak jauntzi eta ilusio osoz ibili ziren lasterka batetik bertzera. Bertzalde, Korrika nagusia ez zen herritik pasatu, baina Ibintza Kultur Taldeak martxoaren 28an, edizio guztietan bezala, aurrean ere kilometroa erosi zuen. Kilometroa Basakabi eta Goizueta tartean izan zen, eta herritar dexente bildu zen.

Nafarroa mailan 4.152.759 euro banatu dira 213 udal, konteju, junta eta mankomunitateren artean.

Maiatzak 16an gaupasa

Azken hilabete hauetan, Ibintza Kultur Taldeak zerbait berria egin nahian zebilen. Ba dagoeneko pentsatu zer

eta noiz, eta orain azken ukituak ematen ari dira. Gaupasa antolatu dute eta maiatzaren 16an izanen da. Dena zehaztean horren berri emanen dugu.

Udalaren zorpetze maila

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu berri

duen informazioaren arabera, Ituren, 481 bizilagunekin, 272.000 euro zor zituen 2008ko urte akaberan. Herritar bakoitzeko zorra 565 euro eta erdikoa da. Eskualdean Malerrekada zorpetze maila baxue- n duena, baina aldi berean, Malerrekako herrietan zorrik haundie- n Ituren, 481 bizilagunekin, 272.000 euro zor zituen 2008ko urte akaberan. Herritar bakoitzeko zorra 565 euro eta erdikoa da. Eskualdean Malerrekada zorpetze maila baxue- n duena, baina aldi berean, Malerrekako herrietan zorrik haundie- n Ituren, 481 bizilagunekin, 272.000 euro zor zituen 2008ko urte akaberan.

BAZTAN, BIDASOA eta XARETako *gastro*nomia gida

non bazkalduko dugu?

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, informazio interesgarritz bete.

Aurrean ere, Gida Gastronomikoa argitaratuko du KULTURKARIK. Gure herrietako jatetxe eta ostaluen eskaintza erakustez gain, jatetxe bakoitzak dituen zerbitzuak eta bisitariak herri bakoitzean aurkituko dituenak ere bilduko ditu.

Ekainean, turistak ibiltzen diren toki guztietan banatuko da gida hau, bazkaltzeko plana egiterakoan lagungarri izateko. Era berean, jatetxe-ostalatu bakoitzean ere utziko dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko. Ikusgarria den gida egin nahi da, begietarako atsegina, informazio ugariak eta zehaztasun bitartez ulertzeko erraza.

publizitatea erreserbatzeko
deitu 948 63 54 58ra

gastro
gida 2009

Kulturkari

DONEZTEBE

San Pedro aitzineko ortziralean hasi eta asteazkenean akituko dira aurten bestak

Ortziraleko ekitaldiak Gazte Burrenba eta ostatuek antolatuko dituzte

ttipi-ttapa

San Pedro bestak hasteko oraindik bi hilabete baino gehiago gelditzen badira ere, Udalak egunak finkatu ditu dagoeneko.

Egun haundia, ekainaren 29a eta San Pedro Eguna, astelehenerkin tokatuko da, baina bestak aitzineko asteburuan hasiko dira, ortziraletik igandera bitartean jende gehiago biltzen delako.

Miguel San Miguel alkateak **Ttipi-Ttapa**ri adierazio dionez, aurten krisia dela eta, bestetako aurrekontua murriztu egin behar izan dute. Hala, Udalak larunbatetik asteazkenera bitarteko besta egunak antolatuko ditu. Ortziraleko ekitaldiak, berriz, Gazte Burrenba eta os-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eduardo Oiazabal zinegotzia joan den urteko bestetan txupinazoa botatzear.

tatuen esku utzi ditu.

Udalekuak herrian

Nafarroako Gobernuak Gaztediaren Nafarroako Institutuaren bitartez udan antolatu-

ko dituen gazteentzako jardueretako batzuk Donezteben egingen dira.

Uztailaren 22tik 31ra bitarte udalekuak egingen dira eta 15-18 urte bitarteko gazteek iza-

nen dute parte hartze-ko aukera. Donezteben 28 ikaslerentzako tokia izanen da eta, bertzeak bertze, kaleko animazioan oinarritutako ekin-tzak egingen dira. Gazte Txartela dutenek 197

euro ordaindu beharko dute eta ez dutenek 214 euro.

Izena eman eta informazio gehiago nahi izanez gero Lekarozko Aterpera (948 581804) edo 902 230400 telefonora deitu behar da apirilaren 25a baino lehen.

Neska infantilak Nafarroako selekzioarekin

Hainbat dira Nafarroako eskubaloi selekzioarekin entrenatzeko deituak izan diren Errekako jokalaria, mutilak zein neskak. Azkenak infantil mailako hiru neska izan dira: Maider Omar, Olaia San Miguel eta Amaia Zugarramurdi. Lehenbiziko hitzordua apirilaren 4an egin zuten.



ESKAINZA ZABALA eta ESTILO GUZTIAK

Bisita ezazu sukalde erakusketa berria!

AMAIUR ALTZARIAK

Rosa Seminario 13
DONEZTEBE
Tel: 948 450 400

SALDIAS

Antzerki emanaldi arrakastatsua egin dute Beintza-Labaien eta Saldiasko haurrek

Egun bateko antzoki bihurtu dute herriko eskola

Markel LIZASOAIN

Beintza-Labaiengo eta Saldiasko haurrek antzerkia egin zuten, ingelesez, apirilaren 2an. Txikienek dantza eta musika emanaldia egin zuten, eta zaharrenek obra nagusia: *The Lucky Accident* (zorioneko istripua).

Lagun koadrila bat mendira joan eta, halako batean, zulo batera erortzen da haletako bat. Soka batez erreskatatzen dute, eta anbulantziari deitzen diote zulotik atera dutena sendatzeko. Erreskate horri esker, antzinako margoak deskubrituko dituzte zulo horretan, eta hori izanen da biharamunekoen prentsako berri nagusia.

Baserritarren rolean aritu zen Julen Erasun. Antzezpena

franko ongi atera zela ikusi zuen, «*aurretik pixka bat entsaiatzen aritu baiginen*».

Jende saila joan zen ikustera, gehienbat gurasoak. Eta emankizunaren akabailan, diploma bana eman zien teatroko zuzendariak haurrei egindako lan onasartzeko.

Sagardotegiko afaria

Herritar gehiago joan zen Astigarragara, eratsundarrekin batean antolatutako sagardotegira. Ez, ordea, autobusa betetzeko beste. Dena den, joan zirenak txulelara ailegatu orduko hasi ziren kantari *Erribera*, *Erribera* eta *Maritxu nora zoaz*. Etxera buelta ere isildu gabe egin zuten, kantari batzuek eta zurrungek besteak.



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Beintza-Labaiengo eta Saldiasko haurrak ageri dira. Haur txikienek kantari aurkeztu zituzten beren buruak, ingelesez.



ARGAZKIA: ENEKO MITXEO

Lasterkari gutxi

16. Korrika laster batean hasi zen, eta laster batean akitu. Martxoko hondarreko larunbat arratsaldean zuten hartua saldistarrek kilometroa gobernuak egiten ez duena beste behin herritarrek egiteko asmoz. Ordea, herritar gutxi azaldu zen korrika egitera; zehazki, 2 lagun besterik ez, eta haiek ere etxe beretik joanak. Hala ere, euskararen kiderrari indar guzietan eutsi, eta zalorkatu gabe eman zioten ondoko kilometroko lagunari. Argazkian lurdango Begoña Mitxeko, lekukoari goi-goian eusten diola.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> Langile autozomoak Nekazariak eta mendi langileak Nominak eta Aseguro Sozialak Lan-Kontratutarako laguntzak Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza ezberdinak Kontabilitateak IVA eta IRPF Errenta aitortpenak Elbaritasun eta jubilazio espedienteak Bidegarritasun planak eta aumekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESACA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Alberto RETEGI

abokatu

abokatu

☎ 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

ttipi
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

ZUBIETA

Elvira Romay legasarrak hartu du Herriko Ostatuaren ardura

Hirugarren deialdian aurkeztu da eta maiatzaren 1ean hasiko da lanean

ttipi-ttapa

Udalak Herriko Ostatuaren errentan hartzeko egindako hirugarren deialdira eskaintza bakarra aurkeztu da eta horixe izanen da maiatzaren 1etik aitzinera ostatuko martxaz arduratuko dena.

Urtarrilean zabaldu zuen Udalak lehiaketa irekira Herriko Ostatuaren errentan hartzeko aukera baina ez zen inor aurkeztu. Bigarren deialdi bat egin zuen otsailean, hilabeteko errentaren kuota jaitsiz. Hasieran finkatutako 750 euroko kuota 600era jautsi zuen, baina orduan ere ez zen inor aurkeztu. Hirugarren deialdirako hilabeteko kuota 450 eurora jautsi zuen. Apirilaren 4an akitu zen eskaintzak aurkezteko epea eta hone-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lehen bi deialdietan eskaintzarik aurkeztu ez zelako, Udalak hirugarrenez atera behar izan zuen lehiaketara Herriko Ostatuaren errentan hartzeko aukera.

tan Legasan bizi den Elvira Romay Fernandez aurkeztu zen. Maiatzaren 1ean hasiko da la-

nean. Kontratua bortz urterako izanen da, eta bertze horrenbertze luzatzeko aukera izanen da.

Obra berriak estatuko subentzioarekin

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egitekoak ziren obrak egun hauetan akitzekoak dira. 54.689 euroko subentzioa jasoko da eta horrekin, herri sarrerako markesina birmoldatzen eta bide batzuk moldatzen ibili dira Pitti enpresako langileak.

Markesina moldatuta, bideak konpontze-ari ekin zioten. Dagoeneko Ibarrenea aldeko bideko lanak akituak dira. Zabaldu egin da. Lerro hauek idazterakotan Sareko aldean bideak zabaltzen ari ziren, eta Herriko Etxean aste honetan edo hurrengoan akitzea espero zuten.

ELGORRIAGA

Pista eta herriko obrak Pitti enpresaren esku

ttipi-ttapa

Udalak zabalduko lehiaketara bi enpresa aurkeztu ondoren, Pitti enpresak egiten ditu Espainiako Gobernuaren aguntzarekin egitekoak diren lanak. 38.760 euro hartuko ditu Udalak, 16.505,05 euro plazan konponketak egiteko eta bertze 22.230,03 euroak Armala eta Iturmututako bideak moldatzeko. Plazako lanak hilabete honetan hasitekoak dira, eta pistetakoak uda aldera egiten dira.

Balnearioa

Balnearioa apirilaren zabalduko zutela iragarri arren, azken ordukoak tarteko, gibelatu egin da irekiera eguna.

1951tik Casa Cambra lantzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mainalreak
mantelak
kuxinak
toailak

2009ko udaberriko kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

DIRULAGUNTZAK

LAGUNTZAK

Azpiegitura lanak egiteko 676.000 euro emanen ditu Gobernuak

Eskualdeko hamar herrik hartuko dute dirulaguntza

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Sailak 676.125 euro bideratuko ditu azpiegitura lanak egiteko. Eskualdeko hamar herrik hartuko dute laguntza, guztira 1,15 milioi euroko aurrekontua eragin dieten gastuei aitzin egiteko. Amelia Salanueva kontseilariak apirilaren 1ean onartu zituen dirulaguntzak.

Dirulaguntza jasoko duten Nafarroako hamar herriatik hamar eskualdekoak dira: Arantza, Beintza-Labaien, Elgorriaga, Erratzu, Etxalar, Igantzi, Leitza, Oieregi, Oitz eta Urdazubi, hain zuzen. Laguntza, batez ere, ur hornidura sarean lanak egiteko izanen da.

Ondoko taulan herri bakoitzak egin duen gastua eta jasoko duen dirulaguntza ageri da, diru hori zertarako den zehaztearekin batera.

HERRIAK	ZERTARAKO	AURREKONTUA	LAGUNTZA
ARANTZA	Ur hornidura sarean konponketak	14.421 €	8.702 €
BEINTZA-LAB.	Ur hornidura sarean lanak	30.938 €	24.003 €
ELGORRIAGA	Bainuetxerako bidean harri-lubeta egin	74.777 €	52.344 €
ERRATZU	Untxide auzoan elektrizitate lanak	5.220 €	2.610 €
ETXALAR	Argiteria herrigunean	231.653 €	122.377 €
IGANTZI	Berrizaunen ur hornidura sarea berritu	102.479 €	61.841 €
LEITZA	Euri-kolektorea berritu	62.703 €	42.267 €
OIEREGI	Kontzejuko etxea zaharberritu	232.485 €	94.764 €
OITZ	Ur depositu berria eraiki	128.487 €	60.012 €
URDAZUBI	Ur hornidura sarean aldaketak	267.065 €	207.204 €
GUZTIRA		1.150.228 €	676.125 €



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Etxalarko herrigunean argiteria berritu nahi da eta 231.653 euroko aurrekontua duen obragatik, Nafarroako Gobernuak 122.377 euro emanen dituela iragarri du.

Ama langileentzat dirulaguntza deialdia

ttipi-ttapa

Hiru urte bitarteko umea duen eta etxetik kanpo aritzen den ama langileari zuzendutako dirulaguntza deialdia zabalik dago. Baldintzak aitzineko urteetako enberdinak dira, baina diru kopuruan muga berriak finkatu dira (errenta aitortzen 507. kasilla begiratu):

-18.000 euro baino diru-sarrera tikiagoa izan dutenek hileko 150 euroko laguntza izanen dute.

-28.000 eta 18.000 euro arteko diru-sarrera izaten duenak hilean 100 euroko laguntza izanen du.

-28.000 euro baino diru-sarrera haundagoa dutenak dirulaguntza deialditik kanpo gelditu dira, nahiz eta gainerako baldintzak bete.

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 30ean bukatuko da. Eskaera joan den urtean egin eta aurten berritu nahi dutenek eskaera orria etxean jasoko dute, baina aurten lehenbizikoz eskatzeko Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetan hitzordua eskatu behar da (948 635036) eta dokumentazio hau eraman behar da: ama eta bikotekidearen NAN-ren kopia eta Familia Liburuaren kopia.

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

Behetik

Añorga-Ixiki, 14
T. 943 363 791
671 073 888
www.behelik.com

plataformak • igogallu bereziak • ahulki bereziak...

KULTURA

Antzerkia eta musika emanaldiak eskualdeko hamaika herritan Udaberriko Biraren barne

Ekainaren 21era bitarte zer ikusia izanen da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Turismo Departamentuak antolatuta, hil honetan abiatuta da Udaberriko Bira.

Narbarten, apirilaren 26an Zirika Zirkus taldeak *Ilargian* antzezlan eskainiko du 16:30ean plazan. Maiatzaren 2an **Beintza-Labaienen** talde horrek ikuskizun bera eskainiko du 19:00etan plazan. Ekainaren 14an **Etxalarren** antzerki bera ikusteko aukera izanen da, 17:00etan plazan.

Arantzan maiatzaren 9an Mielotxin taldeak musika emanaldia eskainiko du, 20:00etan eskolan. **Goizuetan** ere talde berak joko du maiatzaren 22an. 20:00etan hasiko da Ganbaran.

Maiatzaren 17an **Donamariako** frontoian, Kiki, Koko eta Moko pailazoaren eskutik *Txintxilin baka* egin antzezlan izanen da ikusgai. 18:00etan hasiko da. Antzerki bera izanen da ikusgai **Zubietan** maiatzaren 30ean, 19:00etan erabilera antzeko aretoan.

Areson Zirika Zirkus taldeak *Ametsetan* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 23an, 18:00etan plazan.

Igantzin Pasadas las 4 taldeak *Kontadazu hamabietan* antzezlan eskainiko du ekainaren 6an, 19:00etan Biltokin. **Sunbillan** ekainaren 21ean ikuskizun bera izanen da, 12:00etan udaletxean.

Urrotzen Muthiko Alaiak fanfarre taldearen eskutik musika emanaldia izanen da ekainaren 7an, 13:00etan plazan.

Nafarroako Gobernua - Caja Rural Hitzarmena

Nafarroako Gobernuarekin sinatutako Hitzarmenaren arabera **Caja Rural**-ek enpresa, autonomo eta partikularren eskura **229 milioi euro** jarri ditu orain, kreditu baliabideetan.

Enpresetan inbertsioak eta birfinantzazioak
20,20
 milioi euro

Enpresa Handien Zirkulatzalea
20,20
 milioi euro

Nafarroaren etorkizunari

KREDITUA

Pymes eta MikroPymesen Zirkulatzalea
50,50
 milioi euro

VPO eta VPT Babestutako Etxebizitzaren Erosketarako
78,78
 milioi euro

Mugatutako Prezio Libreko Etxebizitzak erosteko
47,47
 milioi euro

Autonomo, saltoki eta denda tokien mikroredituetarako
12,12
 milioi euro

nire aukera



www.cajarural.com | Tel: 942 010 000

LEITZA

Abdelhak Sabbik irabazi du XXXI. Herri Krosa

400 korrikalarirekin inoizko parte-hartzerik altuena izan da

Asier IMAZ

Jendetza animatu zen apirilaren 4an krosean aritzeko, eta guztien artean, seniorren mailan, Sabbi izan zen azkarrena, proba 30:25ean eginez. Eguraldi bikaina egin zuen korrika egiteko eta jendea ere ederki aritu zen animatzen. Sari asko banatu zituzten zortzi mailatan antolatutako zuden korrikalarien artean (herritarrena barne).

Leitzako jende ugari atera zen, Aurrera Kirol Elkartearen esanetan, «jendetsuenetakoa izan da». 400 lagunek hartu dute parte. Zortzi talde leitzarretik seik lortu zuten axuria, 48 minutu azpitik egin baituzten korrikaldia.

SAILKAPENA

Seniorretan lehen bigizonezkoak hauek izan ziren: Abdelhak Sabbi eta Hicham Slamrani. Emakumezkoetan, berriz, Laila Jaud eta Maitane Melero.

Lehen leitzarrak Garbiñe Errandonea (23:05) eta Fernando Iratzoki (35:54) izan ziren.

Beteranoetan, lehenak Oscar Primo, Daniel Sanz, Rosa Orofino eta

Eva Zabalegi izan ziren. Lehen leitzarrak Ainhoa Astibia (26:36) eta Juanbau Ansorena (42:12).

Juniorretan, Goreti Sagastibeltza, Leire Sagastibeltza, Angel Pelaez eta Unai Imaz helmugaratu ziren lehengo. Herriko lehena, berriz, Ixiar Mutuberria izan zen.

Kadeteetan, azkenik, Ane Intxausti, Naroa Fernandez, Xabier Lopez eta Aritz Lezea izan ziren nagusi.

Udaletxeko obrak Gañarbe enpresak

Udaletxea moldatu eta oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak Gañarbe enpresak egiten ditu. Udalak lehiaketara atera zituen Espainiako Gobernuaren subentzioarekin egiten dituen obra hauek. Martxoaren 5ean bukatu zen eskaintzak aurkezteko epea eta Udalak Gañarberena aukeratu du. Hasierako aurrekontua 298.468,98 eurokoa da.

Etxauriko harria jaso gabe

Seigarren urtez jokatutako zuten Etxauri herrian



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Korrikalariek eguraldi ederra eduki zuten lasterka ibiltzeko.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Ongietorri beroa egin dio Leitzak Korrikari

Uitziatik barrena, martxoaren 28an ailegatu zen Korrika Leitzara. Jende asko animatu zen, gainera, euskararen aldeko korrika saioa egitera. Herriko itzulia egin ondotik, Basakabirako bidea hartu zuen, handik Goizuetara joateko.

bere izena daukan harriz jasotze txapelketa. Lehen aldiz, Aimar Irigoienek irabazi zuen txapelketa, 13 jasoaldi eginda. Josetxo Urrutia, iazko txapelduna, ezinean ibili zen eta jasoaldirik eman garbera hirugarren gelditu zen.

Beste hiru txapel Aurreran

Nafarroako Kirol Jolasen finalak jokatu ziren martxoaren 28an eta Au-

rrerako pilotariak bi txapel lortu zituzten. Hirugarren mailako kadeteen finalean Xabier Eraso eta Mikel Onsalok 22 eta 19 irabazi zieten Aralar Mendikoei eta bigarren mailako benjaminetan, Beñat Altzelai eta Joanes Illaregik 18 eta 15 irabazi zieten Oberenakoei. Bestalde, Zizurko lau terdiko txapelketan, Anartz Olanok 18 eta 13 irabazi zion Egiureni.

Barriolak min hartu du

Abel Barriolak sei hilabete luzez egon beharke du jokatu gabe. Apirilaren 5eko partidaren eskuin belaunean min hartu zuen, pilota bat jasotzean atzeraka korrika zihoala. Belauneko atzeko lotailu gurutzatua hautsia du eta Buruz Buruko Txapelketan eta udako torneoetan arigabe egon beharke du.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

ttipi
ttapa

(0034) 948 635458

gaztelu scl
iturgintza

kalefakzioa - saneamendua - gasa

Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA



Ainhoa Azpiroz | estetizista

«Bono deskontuak eskaintzeaz gain, opari baleak ere eskaintzen ditugu»

«Laser-depilazioaren eskaria nabarmen igo da gure eskualdean. Joan den azaroaz geroztik laser tratamenduak burutzeko makina propioa dut»

«Bakoitzak duen azal-ezaugarrien arabera kosmetiko bat edo beste eskaintzen diogu bezeroari»

edrgunea

Edertasunaren sekretua Leitzan dago

Zer zerbitzu eskaintzen dituzu?

Behar guztiak asetzen saiatu gara. Esate baterako, esku eta hanketarako hainbat eskaintza ditugu, befiko manikuratik hasita parafinaraino. Depilazioari dagokionez, argizari epelarekin lan egiteaz gain, laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa ere egiten dugu. Emakume zein gizonentzako makillajea, baita betileen eta bekainen moldeatua eta tindaketa ere. Bestalde, solarium kabinak berrikala dugu eta azukre-kanabera-rekin lortzen den brontzeatua (4-5 egun inguru perfektu irauten duena) ere eskaintzen dugu.

Horrez gain, aurpegi eta gorputz tratamenduak egiten ditugu, txokoterapia, ardoterapia edota Cleopatra-bainua modukoak (azken hau esnea eta ez-tiarekin egiten da).

Kosmetika produktuak ere saltzen dituzue, ezta?

edrgunean kosmetika-pertsonalizatuaren salmenta egiten saiatzen gara, hau da, nahi izanez gero, bezeroari azalerako kremak edo edertasun produktuak saldu baino lehen azalaren azterketa sakona egiten diogu eta bezero bakoitzaren azal-ezaugarrien arabera produktu bat edo beste eskaintzen diogu, bezero bakoitzaren azalak ezaugarri desberdinak dituela oso kontuan eduki behar baita.

Duzun eskaintza zabal horretan zein-

tzuk dira jendeak gehien eskatzen dituenak?

Egia esan, laser-depilazioaren eskaria nabarmen igo da gure eskualdean. Joan den azaroaz geroztik laser tratamenduak egiteko makina propioa dut, *Luz Pulsada Anthélia* izenekoa, hain zuzen ere. Oso makina eraginkorra da, laser bidez kendu ezin diren ile zuriak ere kentzen baititu.

Eta zein dira bezeroen artean harriduraz gehien sortzen duten zerbitzuak?

Hasi nintzenetik, bi gorputz tratamendu oso berritzaileak sartu ditut eta hauek bezeroen artean arrakasta handia izan dute. Hauek ardoterapia eta zitrikoekin egindako tratamenduak dira.

Krisi garaian sormena bizkortzen omen da, zure kasuan eskaintza berezirik prestatu duzu?

Solarium eta beste zerbitzu batzuetarako bono deskontuak eskaintzeaz gain, opari baleak eskaintzen ditugu. Bale hauen bidez **edrgunean** eskaintzen ditugun txokoterapia, ardoterapia edota zitrikoekin egindako tratamenduak oparitzeko aukera ematen dugu.

Zein markekin egiten duzu lan?

Gorputz eta aurpegi tratamenduei dagokionez *Anesi*, *Bio Droga* eta *Naturarans*. *Belfet* eskuak eta hanketarako eta makillajeari dagokionez *Montserrat Fagardó* eta *Jorge de la Garza*.

edrgunea
Ainhoa Azpiroz | Estetizista

- laserra
- solariuma
- depilazioak
- makillajea
- aurpegiko tratamenduak
- gorputzeko tratamenduak
- opari baleak
- begien edertzea

Elbarren 67 behea • LEITZA • Tel. 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es

GOIZUETA

Ez zion zorteak lagundu Aimarri bere hamahirugarren final haundian

Mendizabalekin batera 21-22 galdu zuen Irujo eta Goñiren kontra

Esteban AROTZENA

Ez dakigu Aimar Olai-zola superstizioso den ala ez, baina martxoaren 29ko finala, bere ibilbide profesionaleko hamahirugarrena, nola galdu zuen ikusita ez litzateke harrizkoa izanen 13 zenbakiaren beldur izatea hemendik aurrera.

Mingarria izan zen Aimar, Oier eta jarraitzaileentzat finala horrela galtzea. Dena den, ondorengo prentsaurrekoan beraiek esan zuten bezala, «txarragoa izanen zen 22 eta 5 galdu baguen».

Jokoz eta harreman pertsonalaz ederki erkatutako bikotea da Olai-zolak eta Mendizabalek osatzen dutena. Horregatik irabazi zuten iazko txapelketa eta aurten egin dute egindakoa. Finala bukatu bezain pronto bidali zieten mezu

biak Asegarceko teknikariari: «hurrengo urtean ere jokatuko genuke elkarrekin pozik».

Aipatutako 13 finalei gainbegirada emanez, esan, 12 lehen mailan jokatu dituela Aimarrek: 4 buruz buru bi garaipenekin; 4 lau t'erdian beste hainbeste garaipenekin; eta beste 4 binaka garaipen batekin. Zerrendako hamahirugarrena 19 urterekin eskuratutako bigarren mailako Buruz Buruko Txapelketa da. Nafarroako lau t'erdiko txapelketan ere, beste bi garaipen badi-tu Olai-zola II.ak.

Irujo eta Goñiz gain, ETBk ere irabazi egin zuen martxoaren 29ko partidari, 453.000 zalek ikusi baitzuten finala Hego Euskal Herrian eta Errioxan. Orain arteko markak hautsi zituen ikusle kopuru honek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aimar Olaizola buruz buru Barriolari irabazi zionean.



ARGAZKIA: AITZIBER LEKUONA

Korrika arrakastatsua

Ikaragarria Korrikari herrian emandako erantzuna aurtengo edizioan ere! 15 kilometro osatzeko erronka zuten antolatzaileek eta 21 saldu dira, 8.042 euro guztira. Petoekin beste 235 euro lortu dira, eta txartelekin 36 euro. Korrika ondoren elkartean burututako afariak -120 lagun- utzitako etekinak gehitu behar zaizkio aipatutako dirutzari.

Barrikotea

Oroitarazi behar da, presoen aldeko ohiko

barrikotea larunbat honetan, hilak 18, ospatu-ko dela.

Txartelak salgai dau- de oraindik betiko le-kuetan.

H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

ZERAMIKETAN
AUKERA ZABALA
rústikoa • modernoak

ARESO

Ostiral honetan bukatuko dira neska-mutikoentzako kirol ikastaroak

Horrelako zer bait antolatzen den lehen aldia da

Juana Mari SAIZAR

Kirol koordinatzaileak antolatuta asteartean, apirilak 14, hasi ziren herriko neska-mutikoentzako kirol ikastaroak. Ostiral hau bitarte eskolan eta herriko plazan, hiru taldetan banatuta, patinekin, *hokey*an, eta badmintonean aritzea proposatu du koordinatzaileak. Kirol ikastaro hau berria da eta ea nolako balantzea egiten den bukatutakoan.

Emakumeen afaria

Aurreko alean, emakumeen bidaia erdizka utzi genuen. Baina aldi honetan, badugu gehia-

go aipatzeko.

Bakion (Bizkaia) barrena ibili ziren, baita Gaztelugatxen ere. Margotzen ari omen dira ermita, gainera. Baleontzibatean egoteko aukera ere eduki zuten, arrantzaleek zer nolako abenturak izaten dituzten ikasiz. Bermeoko portuan bazkaldu zuten eta ondotik, Arteagako gazteluan ibili ziren.

Halere, hori gutxiegi zela-eta, joan den larunbat santurako, apirilak 11, afaria antolatu zuten Pake Toki elkartearen eta ondotik, dantza pixka bat egiteko asmoarekin, Alaitz eta Itxaso herriko trikitilariak gonbidatu zituzten.



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Herriko pilotarien txapelak

Anartz Olano pilotari gazteak beste txapel bat lortu du, oraingoan Zizurko lau t'erdiko txapelketan. Apirilaren 4an, Egiurenen kontra 16-13 irabazi zuen. Orain, berriz, Zaramagako txapelketan parte hartzen ari da binaka, Toloasa lagun duela. Bestalde, Xabi Eraso eta Mikel Onsalo bikotea Nafarroko Kirol Jolasetan txapeldun izan dira, kadeteen mailan.

ARANO

Gurutz bidea edo letariyak egiteko ohitura berreskuratuko da apirilaren 25ean

60. hamarkadan galdu zen ohitura indartzeko deia egin dute herritar batzuk

Ainhoa ANSA

Herriko jendeakez daki zergatik utzi zitzaion *letariyak* egiteari, baina gazteok ez dugu urtero egiten zen ohitura hori ezagutu. Horregatik, txikitatik *letariyak* bizi izan zituzten herritar batzuk

deia egin nahi izan dute gurutz bidea edo *letariyak* egiteko.

Apirilaren 25ean, larunbata, herrian elkartuko dira mendi buelta egitera animatzen diren guztiak, eta Elizaren aurretik aterako dira. Lehe-

nengo galbayua Juan Donostiakoa izango da. Hortik Arrinabarretako galbayora, Beltsoko itxolako *galbayora*, Gaartzako *galbayora* eta bukatzeko, Ipiñar-sasiko *galbayora* iritsiko dira. Garai batean bezala, go-

saria ere egingo dute tartean. Hau Sooluxen egingo da eta, herritar batek hartuko du ibilbidea egiteko atera direnei mokadu bat eramateko ardura.

Baztertu ezinezko aukera izango da, dudarik gabe, *letariyak* egitea,

Arano inguruan mendi buelta egitearekin batera, ohitura zahar baten kontuak eta istorioak eza-gutzeko.

Beraz, hilaren 25ean, 8:30ean, plazan elkartera animatzen dugu nahi duen guztia.

ZUGARRAMURDI

12 taldek parte hartuko dute asteburu honetan egingen den Titiriteroen Topaketan

Aurtengoa VII. edizioa izanen da

Margari eta Koro

Aste hondar honetarako, apirilak 18 eta 19, Eskual Titiriteroen VII. Topaketa antolatua dago. Larunbat goizean hasi eta igande eguerdiraino 12 talde diferentek eskainiko dituzte emanaldiak.

Larunbata, apirilak 18

11:00etan Museoa: *Papirocuentos* eta *El Caballero Grifo Roto* (Kolektibo humo taldea)
 12:00etan karrikan: *Barreras* (Iñaki Manta)
 13:00etan *Tres cuentos tres y uno al revés* (Erre Ke Erre taldea)
 16:00etan Akelarrean: *Harritzeko ipuinak: Tartalo eta sorgin lapurra* (Bihar taldea)
 17:00etan eskolako plazan: *Wolingen garatxo*

(Goloka taldea)
 18:00etan, Museoa: *Batuta* (Taun taun taldea)
 19:00etan karrikan *Tiriteiros* (Viravolta taldea).
 20:00etan Museoa: *La Molinera* (El tenderente taldea)
 21:00etan Akelarrean: *Mortimer* (Kukubiltxo taldea)

Igandea, apirilak 19

11:00etan *Barne iluna da* (Azika taldea)
 12:00etan eskolako plazan: *Toni Lasal, birusak erasoan!!!* (Antzez-kizuna taldea)
 13:00etan plazan: *Zugarra ala sukarra* (Taupada taldea)
 14:00etan Museoa: *Un instrumento primitivo* (Erre Ke Erre taldea).



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Neska-mutikoak Korrikan Sara aldean

Korrika ez da sekula gure herritik pasatu, eta horrengatik eskolako haurrek beren Korrika Titikia egiten zuten. Aurtun, berriz, egun eta tenore egoikiak zirenez, egiazko korrika kurritu ahal izan dute. Sarako sarreran zegoen 936. kilometroa erositako zegoen, eta gainetako herritarrekin batera, hantxe plantatu ziren eskolako haurrak ere.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Urtxola berriz zabalik

Aline Oronoz eta Kattin Bergararen eskutik berriz ireki zen apirilaren 10ean Urtxola Benta. Zugarramurdi eta Sarako mugan dugun benta hau jatetxe eta ostatu bezala ireki da, eta asteazkenetan izan ezik, egunero lan egingen du. Bertzalde, aipatzekoa da euskal kulturari xoko bat egiteko konpromisoa ere hartu dutela.

ANZABAL
 AGENTZIA



- **Zurich Asegurak**
Autok, etxebizitza, sirtu eta bultzatza asegurak
- **Lan aholkularitza**
Nominu eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**
Baserri, bontzi, preu, etab... salmenta eta alkatua
- **Gastoria**
Bilgaituen transferentziak, gutuzeko kametaren kontzeita eta etxeen giako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
 Tfnoa: 948 580 804
 anzabal@anzabal.com

MARTIKO
 Piel Zakuin, s/n
 31780 Bera, Nafarroa
 Tel: 948 626016 Fax: 948 625006
 www.martiko.com
Atxarrietan kultibatuta eta antzina



DENDA
 OPILOTZUA
 ANTZOLAKIETAN
 OPILOTZALERA

8.30etik
 12.30era
 14.30etik
 17.00etara

Martikorekin
 zu zeu
 sukaldari.

m irentxu



Markarik onenak:

Boboli, Schuss, Paz Rodriguez, Deskizio, Akr, Exit, Dodippetto,



Bertan eskuz egindako soinekoak

Leotardoak galtzerdiak, oinetakoak, sehaskak...



30 marka baino gehiago, prezio guztietakoak



Serapio Mugika, 15
IRUN • 943 618 033

Ordizia kalea, 5
ORDIZIA • 943 881 273

BAZTAN

Baztango Udaberriko Feria egingen da ortziral honetan Elizondon

Bertzeak bertze, XI. Ahari Lehiaketa jokatu da

ttipi-ttapa

Ortziral honetan, apirilak 17, egingen da Udaberriko Feria. Goizean goizetik hainbat ekitaldi izanen dira:

- 10:00etan Merkatuko Plazan, **Azienda Feria**.
- 11:00etan Merkatuko Plazan, **erakustaldia**: bildots erretzea.
- 10:00-13:30 Foruen Plazan, **bertako produktuen feria**.
- 11:00etan **txistulariak**.
- 12:00etan Baztango **dantzarien saioa**.
- 12:30ean **txalaparta** emanaldia.
- 12:30ean **Baztan Zopen** dastaketa.
- 13:30ean **sari banaketa** Merkatuko Plazan.
- 17:00-19:00 **bertako produktuen feria**.
- 17:00-20:00 **dantaldia**.

AHARI LEHIAKETA

Udaberriko Feriaren barne, ohi bezala, Ahari Lehiaketa egingen da Baztango latxa arrazekin. Aurtengo XI. edizioa izanen da.

Lehiaketara aurkeztu diren ahariak 11:00-etarako Merkatuko Plazan egon beharko dute, garbitasun egoera onean. Artzain bakoitzak nahi duen adina aurkeztu ahal izanen ditu eta ez da inolako inskripzio kuotarik kobratuko. Sei sari emanen dira, hiru mutur goriendako eta bertze hiru mutur beltzendako. Bi kasuetan, sariak berdinak izanen da: lehenbiziko saria kaiku bat eta 75 euro; bigarren saria 50 euro eta hirugarren saria 30 euro.

Epaimahaiko lehendakaria Baztango alkatea izanen da (honek ezin badu, Udaleko ordezkari bat). Horrez gain, teknikari, albatari eta nekazariak ere egonen dira.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Pako Aristi Almandoz eta Zigako eskoletan

Idazleak eskolan kanpainaren barnean, hainbertze idazle, komikigile eta ipuin kontalari pasa dira Baztango Herrietako Eskoletatik. Horien artean, Pako Aristi idazle eta gidolaria Almandozko eta Zigako eskoletan egon zen duela gutti. Hondarreko egun hauetan, komunikabide aunitzetan ageri da, berriki argitaratu duen bere azken lanarengatik, haurrek sortutako ipuinekin osaturikoa. Giro polita sortu zen idazle eta ikasleen artean, elkarri galdera-erantzunak egin zizkioten, baina Aristik dioen bezala, «haunditan zer izan nahi duzu?» galderari, inork ez zion erantzun «idazlea izan nahi dut».

Euskara bultzatzeko akordioa

Udalak eta Euskaren Gizarte Erakundearen Kontseiluak euskara sustatzeko lankidetzat hitzarmena sinatu zuten apirilaren 7an udaletxe-ko pleno aretoan. Duela sei urte hasi ziren elkarlanean Udala eta Kontseilua, eta hemendik aitzinera ere, bide beretik segitu nahi dute.

Ekitaldian, bertzeak bertze, Xabier Mendigurren Kontseiluko idazkari nagusiak, Virginia Aleman alkateak, Martin Garde euskara zinegotziak, Oianko Garde Euskarakaz Bai dinamikaren teknikariak eta Raul Lopez udal teknikariak hartu zuten parte.

Amaiur hirugarren 560 kilokoetan

Garaipena lortzeko aukera eduki arren, azkenean hirugarren gel-ditu zen Amaiur Euska-

diko Sokatira Txapelketako 560 kiloko kategorian. Martxoaren 28an jokatu zen azken jardunaldia, eta Abadiño jantzi zuen txapela. Txapelketako azken saioan, Amaiurrek Abadiño eta Berriozarren kontra galdu zuen, eta Baiona eta Napurrak mendean hartu arren, ezin izan zuen hirugarren postua hobetsi eta sailkapen nagusia ere hirugarren gel-ditu zen. 560 kiloko txapelketa bukatuta, denboraldiko goma gaineko lehiaketak ere akitu dira.

Okindegia	Jatetxea
<h1>Uxoa</h1>	
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Especialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!	
Ordoki Industrialdea Tfn: 948 453 403 31713 ARIZKUN	

	
	Jatetxea - Ostatua Hotela - Trinketea Menu Bereziak
	Braçeo iriatse karrika ELIZONDO Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Momentuz Nafarroako Gobernuak ezezkoa eman dio Pikotako harrobiari

Sortuko litzatekeen trafikoa gehiegizkoa izanen litzatekeela adierazi dute

Maite OTEIZA

Ingurumen Departamentuan Iruritako Pikota parajea harrobia egiteko aurkeztutako lehenbiziko proiektua gibelat bota du Nafarroako Gobernuak, osatu gabea egoteagatik. Hala, Pikotako harrobiak sortuko lukeen kamioi trafikoari herriak ezin izanen lioke aurre egin, herritik pasatzen den errepidean arazo larriak sortuko litzatekeelako.

Horretarako errepide berria beharko litzateke eta Udalak hirigintzako arautegia proiektu berri horretara egokitu beharko luke.

Argirik gabe hainbortze herritan

Baztangoiza, Elizondo (alde batean), Gartzainen, Zigaurren eta Iruritan argindarrarik gabe egon ziren martxoaren 28an hiru ordu laurden eta ordu eta erdi artean. Orotsik ez zegoen egu-

nean, hainbortze lekutan gan zen argia, afaltzeko tenorean. Kalte-tuenakostalaritzan ari diren ostatuak eta jate-txeak izan ziren.

Lehenbiziko momentuan, jendeak egun horretan egin zen ordu bateko itzalaldiarekin lotu zuen, ekintza hori leku publikoetan bertze-rik ez dela egiten ohar-tu gabe.

Lekarozeko aterpean gazte-txartela eskura

Nafarroako Gazte-diaren Institutuak batnatzen duen Gazte Txartela Lekarozko aterpean eskura daiteke.

Orain artio, Iruñeko egoitzara joan behar zuten Nafarroako gazte-ek, baina gazte nafar gehiagorengana hurbiltzeko eta errazteko asmoz, Altsasu eta Lekarozko aterpetan aukera eman dute. Hemendik aitzinera, beraz, beharrezkoa den dokumentazioa eramanaz Lekarozen ere egin daiteke.



ARGAZKIA: ONDIKOL

16. Korrika: haurren eta gurasoen Korrika

Oronoz-Mugairitik Belateraino, baztandar aunitzek ongietorria eman zioten 16. Korrikari. Seguru aski Korrikarik jendetsuena izan da aurtengoa, eta batez ere, familiaena, gurasoak eta haurrak protagonistak izan baitira lasterketa pasatu den herrietatik. Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita, Gartzain, Elizondo, Gartzain, Irurita, Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz eta Belateko bide zaharretik Ultzama aldera abiatu zen. Batzuk eskolako ordutegian eta gehienak eskolatik aterata parte hartu zuten, arratsalde eguzkitsu eta hotzean. Aipatu, Baztan-Bidasoaldea eskualdean sartu eta atara zen bitartean, Xorroxin irratia-aren bidez, aukera izan genuela uneoro Korrikaren pausoak jarraitzeko.



ARGAZKIA: IÑAKI EZKURRA

BRTren besta larunbatean Larraintzarren

Baztan eta Ultzamako errugbi jokalariek urtero urtero antolatzen duten gaupasa larunbat honetan, apirilak 18, eginen da, ohi bezala, Larraintzarko frontoian, Ultzaman. 21:30ak aldera, zikiro afariari emanen zaio hasiera, eta ondotik, kantu zaharrak eta bertze sorpresak izanen dira. 00:30etik aitzinera gaupasa izanen da Jalisko Band taldearekin eta goizaldera, Lur Djotak ariko dira, Lur dantzalekuaren laguntzarekin. Zikiro jaterako 380 txartel paratu zituzten salgai antolatzaileek, baina erosteko epea, asteartean, apirilak 14, bukatu zen.

POTTOKI
 Baztanen Plaza, 3 - beheak
 31700 ELIZONDO (Nafarroa)
 Tfnoa: 948 581 983
 info@pottoki.com
 www.pottoki.com

Astelehenean
 larunbatera:
 8:30 - 13:30
 18:30 - 20:00

Gierresenea
 OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Barrutik auzas - Tfnoa: 948 552 043
 ORONÓZ - MUGAIRI

SENPERE

Pilotaren erakustoki berriak udan idekiko dizkio atearak bisitariari

Herriko Etxeak 220.000 euro ordaindu ditu museoa apailatzeko

Franck DOLOSOR

Senpereko lehen erakustokiak atearak idekiko ditu heldu den udan. Pilotaren museoan euskal kirol hau hobeki ezagutzeko parada eskainiko da turismo bulegoaren ondoan. Egun hauetan, Heurocom Hazparneko komunikazio enpresa museoaren prestaketa lanak bururatzen ari da.

Senpereko Herriko Etxeak 220.000 euro ordaindu dizkio Heurocomeri museo apailatzeko. Erakustokian, hogoi lagunek taldeak hartuko dituzten lau gune izanen dira.

Euskal etxe bateko baretik pilota partida bat ikusiko da leihotik plaza batean. Leiho hortan bideo bat agertuko da irudi zaharrek. Ondoan, Jean Dithurbide *Gantxi-*

ki Harotxa senpertarrak 1857an asmatu zituen xisterak nola egiten diren erakutsiko da. Bere aldetik, Ander Ugarte Donibane Lohizuneko pilota egileak eta Punpa enpresako buruak bere lanaren berri emanen du. Gero, bisitariak trinketa bateko pasabidetik ibili beharko du pilotaren joko desberdinak eta partidak ikusteko telebista bidez. Erakusketa batek pilotaren inguruko objektu desberdinak bilduko ditu.

Museoaren bidez pilota orokorki baina bereziki Senpereko pilotariak eta pilotazaleak ezaugarazi nahi dira. Martin Garat eta Jakes Casaubonen azalpenak entzuten ahalko dira, bertzeak bertze. Gainerat, Senpereko lehen trinke-



ARGAZKIAK: AEK

Gazte andana Korrikan, umore onean

Tutera eta Gasteiz lotu dituen hamaseigarren Korrikak Senpere zeharkatu zuen martxoaren 30eko goizean. Senpertarrek lekukoa eraman zuten lasterka Uztaritzeko mugatik Azkainerat. Gazte ainitzek, ikasleek, kirolariek, elkar-teek eta andere auzapezak hartu zuten AEKren aldeko lasterketako lekukoa.

ta, Blankarteiak Amotzen ezagutzeko parada izanen da. Bisitak 40 minuta inguru iraunen du

eta euskaraz edo frantsesez egiten ahalko da. Bisitaria aitzinatu ahala argiak piztu eta itzaliko

dira. Lehen bisita eta estrena ekain hondarreak egin nahi luke Peio Aincy turismo kontseilariak.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

SARA

Aurten ere Fernando Etxegarai nagusitu da Sara Korrika Trail lasterketan

laz baino baldintza hobeak izan arren, ez du bere marka hobetu

Xan HARRIAGUE

Aurten ere zaila izanen da Fernando Etxegarai irabaztea. Lasterketen denbaldiaren hasiera besterik ez bada ere, jadanik erakutsi du sasoi bete-betean dela. Joan den martxoaren 29an Larrungo mazeletan korritu zen 25 kilometroko lasterketa aise irabazi zuen oren bat eta berrogeita hemeretzi minututan. Bigarrenari, Etxalarko Iñigo Lasagari hiru minutu eskas kendu zizkion. Hunekbi oren eta bi minutu behar izan zituen.

Sarako taldeko lehena 23. sailkatu zen. Philippe Vacquie izan zen. Bi oren eta hamalau minutu behar izan ditu lasterketa finitzeko. Emazteetan Elgetako (Gipuzkoa) Oihana Kortazar izan zen azkarrena. Bi oren eta hogeita lau mi-

nututan errekor berria eman zion lasterketari.

Laugarren edizioa sekula baino arrakastatsua izan zen. Lasterkari batzuek errefuxatu behar izan zituzten badaezpada sekuritasun neurriengatik. Izena emateko muga 450 lagunetan ezarri zuten antolatzaileek. Goizean 439 abiatu ziren eta helmugara 396 arribatu. Lasterkan ibiltzeko aro ederra eta freskoa izan zuten.

Pala txapelketako finalak

Pleka trinketeko pala txapelketako finalak heldu den larunbatean zortzi, apirilaren 25ean, jokatuko dira. Goizean maila bakoitzeko finalak izanen dira, eta ondotik aperi-tifa eta bazkaria. Bestalde, laster hasiko den Xoko txapelketan izenak



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Jende andana Korrikan

Astehenez izan bazen ere, herriko jende mordoxka batek parte hartu zuen Korrikaren 16. edizioan.



ARGAZKIA: ALICE ZUMEAGA

Zerri ttiki jatea dirua biltzeko

Sarako Izarra Errugbi taldeak zerri ttiki jatea antolatu zuen maiatzean Korrikara eginen duen bidaia finantzatzeko.

emateko epea zabalik da. Usaian bezala, bortz maila izanen dira. Izena eman nahi dutenek trin-

ketean berean egiten ahal dute, edo bestenaz, (0033) 559542206ra deitu behar dute. Txapel-

keta hilabete huntan hasiko da eta finalak uztailaren hondarrean jokatuko dira.

MONTXO ОСТАТВА

Dantxarinetatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА - ВРДАЗЫБИ

Egutero irekia 10:30etik 02:30era

ZDANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Benarta, 2 - Alkaiaga Industrialdia
LESAKA (sareara Beratik)

Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

Eskisaroi

Jaime Urrutia
Tfnua: 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA

- ostatu
- erretegia

Zugarramundiko bidea, 3 km
948 599 280 - LIRDAZUBI



EZKONTZAK

Mikel Ramos Armendariz eta **Aitziber Almandoz Inda**, Donostia eta Elgorriagakoa, apirilaren 4an Elgorriagan.

Josu Narbarte Etxegia eta **Garbiñe Makazaga Otxandorena**, Goizuetakoa, martxoaren 28an Goizuetan.

Kepa Jon Aizpuru Erasun eta **Kalare Arrillaga Mintegi**, Aiakoak, martxoaren 28an Lesakan.

Jose Javier Iturbide Irisarri eta **Minerva Martin Rodriguez**, Etxalarkoak, martxoaren 28an Etxalarren.

Aitor Zabaleta Baleztena eta **Edurne Erro Tapia**, Leitzakoa eta Lekunberrikoa, martxoaren 21ean Leitzan.

Jon Zapirain Arriada eta **Nekane Ariztegi Irigoien**, Zarauzkoa eta Oizkoa, apirilaren 4an Oitzen.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Iruñe Oiartzabal Agirre, Doneztebekoa, martxoaren 27an.

Galia Moh-Salem Jatri, Doneztebekoa, martxoaren 27an.

Ibai Matxikote Zoco, Lesakakoa, martxoaren 19an.

Matixa Lopez Tapia, Lesakakoa, apirilaren 3an.

Zuhaitz Barbarin Legazkue, Zubietakoa, apirilaren 1ean.

Jone Iratzoki Eizagirre, Narbartekoa, martxoaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Anaclea Iparragirre Altamira, Iturongoa, martxoaren 23an, 87 urte.

Joxe Etxeberria Uitz, Leitzakoa, martxoaren 23an, 84 urte.

Martin Goñi Gamioxtipi, Iruridakoa, martxoaren 24an, 63 urte.

Valentina Bergara Matxikote, Arantzakoa, martxoaren 24an, 83 urte.

Enrique Eizagirre Gondra, Elizondon, martxoaren 24an, 60 urte.

Pedro Elizagoien Lizasoain, Lekarozkoa, martxoaren 25ean, 89 urte.

Sor Maria Consolacion Calvo Hernandez, Elizondon, martxoaren 27an, 89 urte.

Agustina Beola Sagartzazu, Zugarmurdikoa, martxoaren 29an, 83 urte.

Bernando Barandian Goikoetxea, Elizondokoa, martxoaren 30ean, 81 urte.

Marina Hidalgo Sanchidrian, Lesakakoa, apirilaren 2an, 61 urte.

Francisco Santesteban Gorosterra, Zubietakoa, apirilaren 3an, 78 urte.

Jesus Irisarri Telletxea, Etxalarkoa, apirilaren 3an, 67 urte.

Teresa Zozia Igoa, Lesakakoa, apirilaren 3an, 83 urte.



Francisco OYARZABAL MATXIKOTE

Donezteben, 2008ko apirilaren 28an

I. URTEURRENA

Gauetz, zerura begiratzen dugunean,
izar eder bat ikusten dugu.

Hori zu zara;
zure dizdirak indarna ematen digu
aitzinerara segitzeko.

Beti gure artean egunen zara
EZ AGURRIK, EZ ADIORIK, GERO ARTE BAIZIK.

ZURE FAMILIA



Juan Jose LAURNAGARAI

Arraiozen, 2008ko martxoaren 27an

I. URTEURRENA

Hainbeste gauza
gelditu ziren erran gabe,
baina garrantzitsuena,
atta eta senar zoragarria izan zinen.

MAITE ZAITUGU

ZURE FAMILIA



Tomas TORRES ONDIKOL Patxiko IRIGOIEN IPARREA

Patxiko duela hiru urte hil zen,
Tomas, berriz, duela urte bat.

Biak gogoratzeko,
Erratzun hainbat lagun
elkartu ginen apirilaren 4an,
hurra ematen den garaian.
Aritzakungo iturri frexko batetik ura
edatea bezala izan zen; Bizigarri.

BETI GOGOAN

MENDIA

Igande honetan egingen da Berako Maratoi Erdiaren V. edizioa

Lasterketa 9:30ean abiatuko da kiroldegitik

ttipi-ttapa

Mantale Mendi Lasterketa taldeak antolatuta, Berako Mendi Maratoi Erdia egingen da igande honetan, apirilak 19. Aitzineko edizioetan bezala, 2.714 metroko desnibela egin beharko da 21,150 kilometroko ibilbidean.

GPS bidez egindako neurketa berri batetik ondorioztatu du Manttalen desnibela 2.714 metrokoa dela, eta ez, hasieran uste zen bezala, 2.400ekoa. Horrez gain, 21,150 kilometro horietatik 9,72 malda goiti dira eta 10,96 malda beheiti.

Lasterketa 9:30ean aterako da kiroldegitik, eta bidean, zazpi hornidura puntu izanen dira.

Horrez gain, amaieran, luntxa izanen da kiroldegi atarian.

Ibilbideko punturik altuena Larun mendia da (900,40 metro) eta bazuena, berriz, irteera eta helmuga puntuak: Berako herria (31,90 metro).

SARIAK

Gizonezko zein emakumezkoetan, bortz sari banatuko dira. Irabazleak, gizon zein emakumezkoetan, 250 euro, trofeoa eta txapela eskuratuko ditu; bigarrenak 150 euro eta trofeoa; hirugarrenak 100 euro eta trofeoa; laugarrenak 75 euro eta trofeoa eta bortzgarrenak 50 euro eta trofeoa.

Helduen kategorian ere, lehen hiru sailka-

tuek saria jasoko dute: trofeoa eta txapela lehenak, eta trofeoa bigarrenak eta hirugarrenak, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan. Horrez gain, lasterketako errekorra (1:41:27) hobetzen duen korrikalariak 300 euro jasoko ditu, eta lardingo tarte helmugatik lehenengo igarotzen denak, 150 euroko saria hartuko du. Sari hau eskuratzeko helmugara iritsi beharko da.


GAZTETXOAK ERE BAI

Aurten berrikuntza gisa, gaztetxoek ere maratoian parte hartzeko aukera izanen dute. 15-17 urtekoentzat 6,6 kilometroko ibilbidea izanen duen lasterketa an-

tolatu du Manttalen, Berako Kiroldegitik Ibardinera bitarte.

ATERALDIAK LASTERKETA IKUSTEKO

Jendeak Maratoi Erdia ibilbidean zehar jarraitzeko, mendi irteera bat egingen da 9. kilometrorra, Usategietara. Animatzen denarentzat, 9:00etan abiatuko dira kiroldegitik, eta gero handik helmugara itzultzeko. Hiru bat orduz burutzeko mendo irteera da. Horrekin batera, 8:30ean bertze ateraldi bat egingen da korrikalariak Larun gainean ikusteko.



SKEET OLINPIKOA

Itsaso Fagoagak Errege Kopa eta Nafarroako Txapelketa irabazi ditu

Espainiako Txapelketan ariko da asteburu honetan

ttipi-ttapa

Itsaso Fagoaga kirolari lesakarrak Skeet Olinpikoan Errege Kopa irabazi zuen Valladoliden martxoko azken aste hondarrean jokaturako lehiaren bertako tiralari bat izan zuen arerio nagusia. Azkeneko 25 plateretara ailegatutakoan plater bat gibeletik zen lesakarra, baina azkenean

garaipena lortu zuen. Eguraldi kaxkarra izan zuten, hotza, haizea eta euria, baina kopa irabazi zuen. Antonio Javier aita, berriz, seniorren hirugarren mailan azpitxapeldun izan zen.

NAFARROA ETA ESPAINIAKO TXAPELKETA

Apirilaren 5ean, Nafarroako Txapelketako

azken 50 tiroak egin zituzten Fagoaga aita-alabek Valdorban. Elizondoko saioan plater bateko abantaila atera zion Itsasok, baina Valdorban aita berdintzea lortu zuen. Desenpatean, halere, Itsaso nagusitu zen.

Asteburu honetan, bertalde, hilak 18 eta 19, Espainiako Txapelketa jokatu dute Madrilen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Itsaso eta Antonio Javier Fagoaga aita-alabak.

ESKUBALOIA

Errekako talde nagusiak liga irabazi zuenetik 20 urte bete dira

Doneztebarrek igoera promozioa ere jokatu zuten Xixonen

Aitor AROTZENA

Doneztebeko Erreka eskubaloia talde nagusiak liga bikaina egin du eta azpitxapeldun izan da, Anaitazarren gibeletik. Aspaldian ez zuten horrelako denboraldirik egin, baina juxtu orain 20 urte, 1989an, bere lehenbiziko liga irabazi zuen Errekak. Txomin Mindegiak, orduan eta orain entrenatzaile denak, aipatu digunez, jokalarari izateari utzi eta urte hartan hartu zuen entrenatzaile ardura, Luis Goñirekin batera: «Partidak irabaziz hasi ginen, ez aisa, baina irabazi. Txantrearekin lehia gogorra izan genuen. Bereaekin partida bat berdindu genuen, baina bertze guztiak irabazi. Txantreari gol bakarrarengatik irabazi genion Donezteben eta eurek ere partida hori bakarrik galdu zuten liga osoan. Giro ederra izan zen partida hartan frontoian, harmailak bete-beteak, pankartekin...». Orduan eskubaloia ikustera jende aunitz joaten zela gogoan du Mindegiak. Gero urte batzuk motelak izan dira eta orain ematen du berriz ere berreskuratzen ari dela.

PROMOZIOA XIXONEN

Nafarroako liga irabazteak igoera promozioa jokatzeko eskubidea eman zion Errekari

eta Xixonera joan zen talde osoa. «*Mariezkurrenak autobusa debalde paratu zigun*—dio Txominek— *eta ortzegunean joan eta igandea bitarte egon ginen. Sei talde ginen lehian eta bik bakarrik zuten igotzeko aukera. Hiru taldeko bi multzotan banatuak ginen eta gu hirugarrenak izan ginen. Egia errateko, gu baino talde hobexegoak ziren eta guk ez genuen*

batere esperientziarik. Denontzako lehenbiziko aldia zen eta gauza horiek nabaritzen dira». Halere oroitzapen onak gordetzen dituzte entrenatzaileak eta jokalariek: «*talde bezala hotel batean kontzentratuak egotea, 24 orduz elkarrekin, ez zaigu beritze inoiz pasatu*».

Eta berriz pasatzea ere ez du erraz ikusten Mindegiak. «*Ez da ezinezkoa, baina lan se-*

ria egin behar da. Aspetean guttienez bi entrenamendu on egin behar dira, jokalariguziekin eta hemen zaila da denak biltzea. Gainera, aurten lehen mailan aritu diren Beti Onak eta Ardoi seguruenik gure ligan ariko dira eta hori oztopo handiago izanen da».

Ligan bigarren akutu ondotik, orain Kopari ekin dio Errekako talde nagusiak.



Goitian, Erreka taldearen argazkia 1991n. Beheitan. Manu Labiano jaurtiketa egiten Xixonen 1989an jokatuako promozioan (ezkerrean) eta eskuinean 1991ko Boscós-Erreka partidari.



Entrenatzailea

Txomin MINDEGIA

«Zail izanen dugu berriz ere liga irabaztea»

«Ez da erraza izanen berriz ere Errekak liga irabaztea. Maila aunitz haunditu da 20 urteotan. Jendea orduko taldeaz gogoratzen da, baina seguruenik okerrago ibiliko litzateke orain. Indibidualki hagitx onak ziren, baina taldean orain hobeki aritzen da Erreka. Gaur egun dena gehiago lantzen da eta aitzinpauso handia nabari da 20 urte ez baitira alferrik pasatu! Iruñaldeko taldeek astean hiruzpalau entrenamendu egiten dituzte eta guk bat ona eta bertzea jende erdiarekin eta honela zaila da. Aurten egindakoa miraria iruditzen zait».

ARGAZKIAK: ERREKA ELKARTEA

PILOTA

Tanto bakarragatik binakako bigarren txapelik gabe Olaizola

21-22 Irujok eta Goñik irabazi dute aurtengo Eskuz Binakako Txapelketa

ttipi-ttapa

Ihes egindako Fernando Goñiren azken pilotakadak erabaki zuen dena. Guttigatik, baina ongi atera zitzaion tanto horretxek hautsi baitzuen 21eko berdinketa. Eta horregatik ezin izan zuten Aimar Olaizolak eta Oier Mendizabalek iazko garaipena errepikatu.

Martxoaren 30ean Donostiako Atano III.a jendez bete zegoela jokatu zen Eskuz Binakako final handia. Handia pilotalekuan bildutako 2.000 lagunen artean sortu zen giroagatik, eta handia lau pilotariek eskaini zuten jokoagatik. 21-22ko markagailuare-

kin Irujo eta Goñi III.ak jantzi zuten txapela. Olaizola II.ak, berriz, Oier Mendizabal izan zuen bikotekide. Joan den urtean ere Mendizabal izan zuen goizuetarrak giblean, eta berekin lortu zuen palmares bikaina osatzeko falta zuen txapel bakarra: binakakoa. Aurten ez du Goizueta-
ra ekarterik lortu, baina egindakoarekin kontent egon daiteke.

Orain, berriz, asteburu honetan Eskuz Banakako Txapelketako bere lehen partida jokatuko du.

URDIN ALA GORRI?

Irujo eta Goñiren alde markagailuan 11-

17koarekin, dena erabakia zegoela zirudienan eman zion buelta goizuetarrak partidari. Gehiago arriskatu eta 20-19 aitzinetik jarri ziren, partidari lehenbizikoz. 21era jarri zirenean, Goñiri azken pilotakada hark bezala egin zien ihes txapelak Olaizola eta Mendizabali.

PARTIDA HAUNDIA

Ikuskizun handia eskaini zuten pilotariek partidak iraun zuen ordubete eta 35 mintututan. Olaizolak bi tanto egin zituen sakez, sei airez eta txapa gainean moztuta lau tanto. Pilota bat errebotera bidali zuen.



Aimar Olaizola.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

PILOTA

Hamar taldek abiatu dute Baztan-Errekako XXX. Laxoa Txapelketa

Arraioz, Doneztebe, Irurita, Oitz eta Hondarribiko taldeak ari dira parte hartzen

ttipi-ttapa

Apirilko lehen aste hondarrean abiatu zen Baztan-Errekako XXX. Laxoa txapelketa. Aurtengoan hamar taldek eman dute izena.

Arraiozek bi talde ditu. A taldean Iñaki Mihura, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Lournagarai ari dira eta B taldean Aitor Zubigarai, Sergio Navarro, Miguel Maritorea eta Xa-

bier Mihura.

Zenbait urtez lau talde plazaratu baditu ere aurten bi bertzerik ez dira atera **Donezteben**. A taldean, Joxe Manuel Mitxelorena, Josu Juaneña, Mikel Mutuberria eta Julen Etxebeste ari dira eta B taldean, Xanti Mingegia, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra.

Iruritik hiru talde aterra ditu. A taldean, Jorge

Azkarate, Andres Elizaintzin, Igor Urrutia eta Iñaki Etxandi ari dira; B taldean Gorka eta Joseba Urtasun, Jesus Etxenike eta Xabier Ripa eta C taldean, Karlos Garaikoeña, Xabier Barberena, Jagoba Ramos eta Xabier Bazterrika.

Oitzek bi talde plazaratu ditu. A taldearekin, Sergio Fagoaga, Lander eta Iñaki Mendiola eta Juan Mari Mingegia ari

dira eta B taldearekin, Jokin Ziganda, Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Jose Agustin Mingegia.

Hondarribiak ere, bere taldea atera du, Jony Amboage, Mikel Festa, Imanol Festa eta Iñigo Salaberriarekin.

Taldeak bi multzotan banatu dira: A multzoan, Hondarribia, Irurita eta B eta C, Doneztebe B eta Oitz B daude. B multzoan, Doneztebe A, Oitz A, Iruri-

ta A eta Arraioz B eta A.

FINALA

Lehen faseko hamar jardunaldiak jokatu ondoren, multzo bakoitzeko talde bat kanpoan gelditu eta lehen lauek final laurdenak jokatuko dituzte ekainaren 21, 28 eta uztailaren 5ean; finalaurrekoak uztailaren 12, 19 eta 26an jokatuko dira eta final handia abuztuaren 2an, Arraiozen.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

LEHIAKETAK

BAZTAN

Apirilaren 16ra arte, Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartel lehiaketa.

BAZTAN-BIDASOA

Maiatzaren 1era arte, Bidasoako XXII. Bertsopaper Lehiaketa.

ERAKUSKETAK

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 19ra, Itziar Mikelperizena margolariaren erakusketa Sorginen Museoan (11:00-19:00).

BERA

Apirilaren 19ra, *Bera atzo* izeneko argazki erakusketa Kultur Etxean, Rosa Mari Errandonearen eskutik. Asteartetik igandera, (10:00-14:00 eta 16:00-19:00) (igande arratsaldez itxita).

URDAZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

ANTZERKIAK

BERA

Apirilaren 26an, Korri, Xalto eta Brinko pailazoaren eskutik *Artista bat naiz ni* antzerkia. 17:00etan Kultur Etxean.

NARBARTE

Apirilaren 26an, Udaberriko Biraren barne, Zirika Zirkus taldearen eskutik *Ilargian* antzerkia, 16:30ean plazan.

BEINTZA-LABAIEN

Apirilaren 26an, Udaberriko Biraren barne, Zirika Zirkus taldearen eskutik *Ilargian* antzezlan, 19:00etan.

GOMENDIOAK



Titiriteroen Topaketa asteburu honetan Zugarramurdin

EUSKAL TXOTXONGILOEN IKUSKIZUNAK

Txotxongilo festa handia izanen da larunbat eta igande honetan, apirilak 18 eta 19, Zugarramurdin. Bi urtetik behin antolatzen den Eskual Titiriteroen Topaketa asteburu honetan egingen baita. Txotxongiloen topaketak nazioartekoak izaten direnez, bertako taldeei euren lana zabaltzeko aukera eskaintzea ere bada helburua eta hortaz, ohi bezala, Euskal Herriko txotxongilo edo titireeen munduan ari diren hainbat taldek parte hartuko dute euren ikuskizunak eskainiz, guztira 12 taldek. Goiz eta arratsalde, Zugarramurdiko hainbat txokotan izanen da zer ikusia. Aurtengoa VII. edizioa da.

DUELA 13 URTE LEHEN TOPAKETA
Eskual Titiriteroen Topaketa 1996an antolatu zuten lehenbiziko aldiz. Kukubiltxo taldean lan egiten zuten Mikel Diez hil berria zen, eta bere omenez erabaki zen antolatzea. Zugarramurdi aukeratu zuten topaketa hauetarako, Zugarramurdi bizi zelako Mikel Diez. Bi urteren buruan Mikelen laguna eta lankidea zen Estefa Erro zugarramurdiarra ere hil zen, eta geroztik, bien omenez egiten da Eskual Titiriteroen Topaketa, bi urtetik behin. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, 28. orrialdean aurkituko dituzue.

DISKAK



Brazos cruzados

LINEA2

BAGA-BIGA, 2009

Linea2 taldea 2001-ean sortu zen laukotea da eta *Brazos cruzados* diskoa bere hirugarrena du, rock estilokoa. 2004an *La última gota* izeneko lana argitaratu zuen, eta 2006an bigarrena etorri zen: *Mundo sin corazon*. Geroztik kontzertuz kontzertu ibili da Basauriko (Bizkaia) taldea. Rock kaletarraren eta hiritarraren ezaugarriak ditu. Kaleko rockaren oinarriak 70. hamarkadako rock gogorrean du oinarria eta kantuetako hitzetan, berriz, gai soziopolitikoak eta ekologistak ageri dira, maitasun kontuekin batera. 11 abestiko lana da eta taldekideez gain, ahots ezagunen kolaborazioak ere badira tartean: Marea taldeko Kutxi Romerorena, Doctor Deseo taldeko Francis Diezena, Versusdb taldeko Patricia Zalaya Gaubekarena...

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (martxoaren 27tik apirilaren 3ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 46,00 € (=)

Zerri gizena
1,127€ kilo. (+0,012)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,10 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,20 (=)

1.koa 3,90 (=)

2.koa 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,98/3,08

Zaldi-behorrak: 1,67/1,87

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,10/5,90

8-10 kilokoak: 4,20/4,50

JAKIN BEHARREKOAK

Hipoteka bat sinatzerakoan guttieneko interes tipoekin adi ibiltzeko dio Iratxek

Euriborraren beherakadaren onurarak ez du nabaritzen erabiltzaileak

Euriborraren eta interes tipoen jautsierak lasaitasuna ekarri du familia aunitzetara. Baina oraindik, hipotekak tartean direlako, badago kezka eragiten duen bertze kontu bat ere: guttieneko interes tipoa, gaztelaniaz, suelo hipotecario deiturikoa.

Euriborra jautsi ala ez, kontsumitzailea berdin ordaintzera behartzen duen interesa da. Eta horrekin adi ibiltzeko eskatu du Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak.

Zenbait herritar %5 baino altuagoa izan den interes tipo bat ordaintzetik, %2,5 ordaintzera pasatu badira ere, guttieneko interesa duten hipotekaren kasuan, egoera hagitz bertzelakoa da.

Hipoteketako guttieneko interesa, be-



Etxea ordaintzeko eskatzen diren hipoteka-maileguk buruhauste franko eragiten ditu erabiltzaileen artean.

zeroak ordaindu beharreko interes minimoa da, Euriborra eta hitzartutako diferentziazal gehituta.

Interes minimoa bankuen araberakoa da, baina gaur egun, %3-5 artean dago.

Demagun, %3ko guttieneko interes tipoa finkatu dagoela.

Bada, halakoetan hipoteka duenak ez du Euriborraren jautsie-

rarik nabarrituko, berdin—edo gehiago—ordaindu beharko baitu, ekonomia-adierazlea %2aren azpitik baitago.

Aipatzekoa da, guttieneko interes hori eskritoretan ageri dela. Baina Iratxeren hitzetan, kontsumitzaileek, oro har, ez dakit badagoenik ere.


Guttieneko interes tipoa hori finkatua ego-

te horrek ekar ditzakeen arazoak saihesteko aldera, zera adierazi du Iratxek: «*mailegua sinatu aitzinetik guttieneko interes hori badagoen ala ez ikusi behar da*».

GEHIENOKO INTERESA

Guttieneko interes tipoa bezala, gehienekoa ere badago. Euriborraren igoeraren aitzinean, bankuek paratzen dituzten mugak dira, eta zenbaitetan kontsumitzailearentzat onuragarria izan daiteke. Krisia ailegatu aitzinetiko egoeran, Euriborrak etengabe goiti zihoanean, adibidez. Normalean %8-10aren inguruan egon ohi da, zenbaitetan %15ekoa ere izan daitekeen arren. Dena den, momentu honetan ez du garrantzi handiegirik, Euriborrak beheiti egin duelako.

LIBURUAK



Alea

Beñat SARASOLA

SUSA, 2009

Beñat Sarasola Bartzelonan bizi den donostiarrak bere bigarren liburua aurkeztu du: Alea. 2007an bere lehenbiziko liburua plazaratu zuen, *Kaxa huts bat* izeneko olerki-bilduma, eta martxoan Donostiara etorri zen, bigarren poesi liburua aurkeztera. Lehenbizikoa bezala, *Alea* ere poema liburua da eta biak ere Susa argitaletxearekin argitaratu ditu.

Abangoardia grinaz eta sarritan narrazio airez, jendez

mukuru den giro urbanoaren zurrunbilan sartu ditu atzaparrak, eta eguneroko bizimoduaren kronika petral eta makur bat egiten du. Idazlearen hitzetan, liburu hau collage bat da: «*Liburu hau idatzi bitartean asko irakurri nuen poesia eta literatura surrealista eta horko baliabide batzuk collagea, idazketa automatikoa... erabili ditut*». Bertzeak bertze, Mikel Laboaren omenezko testu bat ere badago.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Apirilaren 18an Gorbeia mendi irteera antolatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak. Irteera ordua: 7:00etan.

BAZTAN

Apirilaren 19an Hirumugetara ateraldia, Baztango Mendigoizaleek antolatuta.

BERA

Apirilaren 19an Mendi Maratoi Erdia. Xehetasunak 35. orrialdean.

Maiatzaren 3an IX. Mendi Itzulia.

IKUSKIZUNAK

BERA

Apirilaren 17an, Escena Dantza Jaialdia. *Soñando despiertos* dantza garaikidea. 22:00etan Kultur Etxean.

KANTALDIAK

ELIZONDO

Apirilaren 19an, Nafarroari eskainitako kantaldia Lur dantzalekuan, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

BAIGORRI

Apirilaren 26an, Nafarroaren Eguna. Xehetasunak 5. orrialdean.

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 18an eta 19an, Titiriteroen Topaketa. Xehetasun gehiago 28. orrialdean.

LARRAINTZAR

Apirilaren 18an, Baztan Errugbi Taldearen urteroko besta. 21:30etik aitzinera frontoian. Xehetasun gehiago 30. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Tipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabek salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.


- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

IRUÑA. Txantrean pisua salgai, 4. solairuan, igogailurik gabe. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trastelekua. Berritua eta mobleztatuta. ☎ 667 363593.



DONEZTEBE. Amezitia ka-

DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA

DESKONTUAK CLUB AVIA

%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

ZOKKETAK

Gasolindegia etortzen bazara hainbat zokketatan sartuko zara.

aldatu 4 gurpilak

10 € bafeak

Lurtzak are. 49 - DONEZTEBE - T. 948 451 679 - E. 948 450 657

GANIX
TAILERRA

Itelgailuen mekanika eta elektrizitatea

BERA FIAT zerbitzua

Huelandeta, 9 - Tel: 948 630 669

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guztietako zurgin lanak
- Eskatu surretentzako konpromisoak gabe

Jose Miguel Errozkabe
Tel: 948 634 048 - 947 818 944
Serviziak - ARANTZA

rrikan pisua salgai. Interesgarria. ☎607 978656.

ELIZONDO. 140m²ko pisua salgai edo errentan emateko. 4 logela, igogailua eta ganbara. Santiago karrika 60A2.a. Hagitz aukera ona. ☎617 461649.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

ETXALAR. Pisua errentan emateko, mobleztatua. ☎948 638131.

BERA. Eztegara pasealekuan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainuge- la, egongela eta sukaldia

kanpora begira. Berogailuarekin. ☎600 501881.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua edo etxea errentan hartuko nuke. ☎678 346566.

ETXEBIZITZAK

105 Konpartitzeko

ELIZONDO. Pisua konpartitzeko lagun bat behar da. ☎610 949168.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal ko-

mertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LESAKA. Antoiu 23, behoko solairuan, 48 m²ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

DONEZTEBE. Bi partzela eraikigarri salgai. Prezio ona. ☎607 978656.

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Fistula arazoak? Kirurgia-rik gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618628311.

Pladur instalatzaileak lan eginen luke. Erremintak, furgoneta eta autonomia. ☎609 477277.

LANA

302 Eskaintzak

Tornulari bat behar da, esperimentiaduna. Tornu konbentzionala eta kontrol numerikoa. ☎948 631167.

ANIMALIAK

601 Emateko

Ardi **zakurkumeak** oparitzeko. ☎679 892622 (otorduetan deitu).

Katakumeak oparitzeko. Ite gorri eta marradunak, bat grisa. Ama iletsua. ☎607 744199.

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

SANTESTEBAN Tailerrak

RENAULT

Renault 3 Esporok 1.800 1500cc 2007koak - 14.000 €

Renault 3 Esporok 1.800 1500cc 2007koak - 12.900 €

Renault 3 Esporok 1.800 1500cc 2007koak - 17.500 €

ETA GAIEREA

- Opel Astra GTC 1.8i 16V 2006koak - 13.000 €
- Peugeot 207 1.700cc 2006koak - 20.000 €
- Renault 3 Esporok 1.800 1500cc 2007koak
- Renault Nissan Commercial 1.800 1500cc 2007koak
- Grand Space Commercial 1.800 1500cc 2007koak
- Renault 3 Esporok 1.800 1500cc 2006koak - 13.000 €
- Ford Focus 1.8i 16V 2006koak
- Renault Espace 1.800 1500cc 2006koak
- Opel Astra GTC 1.8i 16V 2006koak - 20.000 €

DONEZTEBEKO RENAUTA HIRI KATEA JA BERRITAN SEKULAKO ESKANTZAK

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



Setter eta pointer arraza-ko **zakurkumeak** oparitzeko. Hilabete batekoak. Luma ehizarako. ☎607 744199.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Mendiko **garainoa** erosi edo trukatu nuke. Beltza bada hobe. Nirea mendian ongi egoten dakiena da, pottoken tamainakoa. ☎637 873969.



2 **ahari** salgai, latxak eta mutur gorriak. ☎ 948 504498.

DENETARIK

702 Salerosketak

1,5-6x44ko **mira** salgai. Le-

oupold eraztun desmuntagarria eta fundarekin. 275 euro. ☎629 722980.

Belarra biltzeko eta nahasteko makinak salgai. Deutz Fard markakoak. ☎649 575549.

Esnea hozteko **tankea** salgai, 250 litrokoa. ☎948 504498.

Gaztain piketeak salgai, 1,80 metrokoak. 100 pikete eskaerak guttienez, bakoitza bi eurotan. Kargatzerako momentuan ordaindu beharra (ez dugu atzerapenik onartuko). ☎948 510078.

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Biomasaren inguruan interesatua dagoen jendearekin harremanetan jarri nahi nuke, galdara paratu duena edo paratu nahi duena. ☎616 295420/ joseba@ingurulan.com.

UDABERRIAN larun haizpek GONBIDATZEN ZAITU
50 EUROKO BONOAK OPARITZEN DIZKIZU

IRAKURTZERA (15-19)

PRIETO ESTANHOA	IGONE URJURI DENDA	ARTIEDA ESTANHOA
ELKAR URJURI DENDA	PURIENEA URJURI DENDA	

ZURE BARNEA ZAINTZEZA (18-24)

PIKABEA URJURI DENDA	ELORTZIRI URJURI DENDA	OROZ URJURI DENDA
TXALUPA URJURI DENDA	JAIONE URJURI DENDA	TELLETXEA URJURI DENDA
SAROBÉ URJURI DENDA	ERRANDONEA URJURI DENDA	LABEZAR URJURI DENDA
SUSAMA URJURI DENDA		

ZURE BURUA GOXATZERA (15-21)

YOAN URJURI DENDA	KATEA-BIKE URJURI DENDA	ALZUGARAI URJURI DENDA
TXOMIN IRAZOKI URJURI DENDA	DULUE URJURI DENDA	XIRGIL URJURI DENDA
ILAIK URJURI DENDA		

Gobierno de Navarra

eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Kulturkari

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

irudi batek 1000 hitzek baino gehiago balio duelako...

berritu ezazu zure enpresaren irudia | TXARTELAK | KARTAZALAK | ORRIAK | FAKTURAK

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Sunbillako **EGOI IRIGOIEN** ARRETXEAK apirilaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki muxu haundi bat atta eta amaren partetik. Ongi pasa eguna!



ARAITZ MADARIAGA OTEGI aranzarrak apirilaren 24an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta zure bi anaia bihurrien partetik.



AIMAR OTXANDORENA MITXELENA le-sakarrak urtea eginen du apirilaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat zure familiaren partetik, bereziki arrea Janire eta guraoen partetik.



ANDONI EUGI MENDIZABAL. Zorionak Igantziako aizkolarari apirilaren 1ean 4 urte bete dituelako. Besarkada haundi bat Juanjo, Odei eta Ibonen partetik.



ANDONI EUGI MENDIZABAL. Zorionak gure etxeko deabruari apirilaren 1ean urteak bete dituelako. Muxu haundi bat atta, ama eta Mattinen partetik.



Irungo **AIMAR ETXEBERRIA** ZUBIALDEK 3 urte beteko ditu apirilaren 27an. Zorionak potolo!!! Muxu handi bat Xune, Unai, Mirari, Jone eta Landerren partetik, eta prestatu berendu goxoa!!!



OLATZ ETXEPAREK apirilaren 3an 10 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Ongi pasa eguna eta kaso berriarekin.



Elko-Nevadako **KYLE OWSLEY** IGOAK 7 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Zubietako **MIKELE** ausartak 9 urte bete ditu apirilaren 9an. Zorionak sorgintxo eta fokak eman zizun bezalako muxu erraldoia atta, ama, Beñat eta Malenen partetik. Merendola goxoa prestatu e! Ongi pasaaaaa...!!!




Zubietako **JOSU** eta **NAROA** osabailobak urteak bete dituzte datorren apirilaren 15ean. Aunitz urtez eta bina muxu Garazi, Uxue, Iker eta Ekaitzen partetik. Berendu goxoa prestatu bikote!



Iturengo **HILARIA** eta **MANUELEK** 57 urte beteko dituzte ezkondurik apirilaren 17an. Zorionak familia guztiaren partetik eta horrela segi urte askoan!



Zorionak Iradi, Maialen, Oier, Xuban, Ane, JUNE, Janire, Ibai, Ekiñe, Ekaitz, Eneit, Beñat eta Oihanen partetik. Berendu goxoa prestatu!! Ama-txoentzat ere bai!



ASIER GELBENZUK 5 urte beteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Katixa, Onintza, Naroa eta Alazneren partetik.



Goizuetako **OIER MIRANDAK** 6 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak eta muxu haundi bat Iker, atta eta amaren partetik.



ANDONI LA TORRE etxalartarrak apirilaren 8an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Asierrren partetik.



DANIELA CALVO ARANZADIK apirilaren 26an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



AROA ARREGI BARRIOLA leitzarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat osaba Asintxion partetik.



IZARO ARRETXEKA MIKEO aurtiztarak apirilaren 21ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ANDONI EUGI MENDIZABAL. Mila muxu gure printzeari apirilaren 1ean 4 urte bete dituelako. Zorionak Lesakako atautxi eta amauxirenen partetik.



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

zure laguntza behar du

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**

Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a baino lehen.



geure bezeroek aukeratutako proiektua

deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK



OSTARGI Optika • BERA

%10eko deskontua, 20€tik gorako gastuan



TXINELKA Zapata-denda • LESAKA

%10 deskontua



KATEA-BIKE • BERA

%5eko deskontua konponketetan



FOTO MENA

MENA Argazki-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua kopia digitaletan

MASTER

ALTZURI

ALTZURI Etxetresnak • LESAKA

%5eko deskontua etxetresnetan

SARIDUNAK:

- 1 3 liburu (Elkar): Axun Irazoki (Zugarramurdi)
- 2 2 kamiseta (Oninart): Xabier Angulo (Bera)
- 3 2 jantzi (Txapela Buruan): Amaia Abuin (Bera), Maite Etxenike (Irunta)
- 4 3 liburu (Ibaizabal): Itzi Castillo (Bera)
- 5 Martiko produktuen lotea: Juani Altxu (Ituren)
- 6 Valse Musette de Fran Idaretaren diska (Ferminmusic): Josepa Etxenike (Etxalar)

SMSa

2 sarrera (Camelot Park): Javier Mindegia (Dronoz-Mugairi)



Liburu (Mendukiloko leizeak): Maite Elia

5 sarrera (Mendukiloko leizeak): Josune Ballarena Aitz Aiora (Ituren), Julen Meoki Ainhoa Arretxea (Irunta), Gema Mutuberria (Lesaka)

Animatu www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu.

ESKATU ZURE TXARTELA 948 63 54 58



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

10 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu ostelehenetik ostiralera 09:00-16:00

Tel: 948 63 54 58

HIRU LIBURU

Mobilen barmetegia (tiketak) Sorgin abertzakuna (I+D) 4 urte, 6 hilabete eta 3 egun gerago (I+D)

1 Lote 1

www.ibaizabal.com

ARGIA HARPIDETZA

3 hilabetekoa

4 Lote 1

www.arga.com

JANTZIAK

Sorrekak, kamisetak, pertsek... zuk aukeratu

2 Lote

www.txapela-buruan.com

Pirritx, Porrotx eta Mari Motos

Eskerrik asko DVDa Herriko postariak liburu Piratak posterra 3 pin

4 Lote 1

www.kahipomota.com

KAMISETA

2 Lote

www.ondatapunta.com

CD

Mikel Alaitza

1 Lote 1

www.ferminmusic.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA 5767 ra

AQUARIUM

2 SARRERA

Lote 1 2 sarrera

www.aquarium.com

Artic

Palacio de hielo

5 sarrera

Teléfono 948 23 88 55 Urtarte Nafarroa

Zozketan parte hartzeko epela: apirilaren 19a 23ha, irabazleen izenak apirilaren 30eko ostekotan argitaratuko dira. Mezuaren kontua 1.20€ (BEZ gabe). Zure izenak ttipi txartelaren 5 hilabetez geratuko dira zuzerantzaren izenari izen ezberdian berri emateko. Zuzenketa edo deialdearen bitartez deitu 948 63 54 58ra.



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com

betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxe: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)